

ARGIA



ELB ETA LURZAINDIA ARBONAN

Lurrak laborarientzat izaten segi dezan

22-27. orriak

2.743 | 2021 / 08 / 01 | 3,90 €



*"Hemen jende asko hil
da produktu kimikoak
botatzeagatik"*

12 | SAÚL GIL BERZAL



*Etxebizitza arazoa,
auzi antifaxista
ere bai*

34 | GIZARTEA



LARRUN #265
**Euskal
deportatuak**

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Iritziak

- 17 | ASIER BLAS
- 18 | BEA SALABERRI
- 19 | IÑAKI BARCENA
- 19 | CASTILLO SUAREZ
- 20 | AHOZTAR ZELAIETA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 47 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA: IONAN MARIGOMEZ
- 54 | BERANDUEGI



28 | ETXE KALERATZE ESTRAJUDIZIALAK ETA FAXISMOA.

Amaia Lekunberrik landutako erreportajeaz azaldu du Desokupa enpresa faxitari atzera eginaraztea lortu dela Euskal Herrian, baina sakoneko arazoak jarraitzen duela: kapitalismoa krisian den honetan, jabetza pribatuari eusteko erabiltzen den faxismoa.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Etiopian aspaldiko oihanen azken aleek biziari eusten diote ehunka baselizaren inguruko harresien babesean

Pello Zubiria

12 | PERTSONAIA | SAÚL GIL BERZAL

“Errioxako Jatorri Deituran erabaki guztiak dira bodega aberatsenen aldekoa”

Miren Artetxe

22 | ARBONAKO OKUPAZIOA

Laborantza lurren desagerpen basatia geldiarazteko neurriak erdiesteko borroka-gunea

Jenofa Berhokoirigoin

34 | GIZARTEA | MUGARIK GABE

“Naturaren aurkako ekintza oro giza eskubideen urraketekin dago lotuta”

Irantzu Pastor

38 | EUSKARA | EPAITEGIEN OLDARRALDIK

Ezer aldatu gabe, legeak ez du lehen bezalako baliorik

Gorka Peñagarikano

44 | KULTURA

Ama, hiri bihurtuta

Julen Azpitarte

46 | KULTURA

Puppy elkarrizketarako aitzakia

Peru Iparragirre

Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iraitz Madariaga, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

lametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gasteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOAK

iametza
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi duguz.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA





ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Calle kalea

Gurean indarrean den elebitasun faltsuak hamaika egoera zentzugabe eragiten du. Horren adierazgarri, calle / kalea bikotea. Kaleen izenen berri emateko mundu osoan erabiltzen diren plaka horietan calle jarriko ez balu, Hego Euskal Herriko erdaldunek ez lituzketelako inoiz asmatuko kaleen izenak; eta gainera euskara hutsean idaztea "inposaketa" litzateke. Ala ez? Herri bitxia da gurea. Eta horrela da euskaldunok pozten garelako Euskal Herriko udal batek, noiz eta 2021ean, kale izenak euskaraz ere jartzea erabaki duelako. Baina hala behar du. Garaipena delako, hamarkada luzez goikoek behekoei euskara inposaketarekin lotuta aurkeztu diguten lurraldean. Irudian: Sartaguda.

 JAGOBA MANTEROLA / FOKU  AXIER LOPEZ





Calle
del Cementerio
Hilerri
kalea

MOTZEAN

Tubacexen Aiaraldeko bi lantegietako EEak eta kaleratzeak baliogabetu eta langileak berriz onartzera behartu zuen zuzendaritza EAEko Auzitegi Nagusiak. Hasierako ezezkoaren ostean, joan den astean langileak lanera bueltatzea onartu zuen zuzendaritzak.

Egonaldi baimena lortzeko gose greba abiatu zuten 450 migratzailek Bruselan. Belgikako Gobernuaren partetik eskaerari erantzuteko postura sentiturik, gose greba utzi zuten 60 egunen buruan.

Mugak Zabalduz karabanak migrazio politikak salatu ditu Tenerifen eta Kanaria Handian egindako ekintzetan.

Pertsona ez binarioak aintzat hartu dituzte Argentinako nortasun agirietan, lehen aldiz Hego Amerikan. F (femeninoa) eta M (maskulinoa) gaztelaniazko ohiko siglen ondoan X agertuko da aurrerantzean.

Arabako makroproiektuen aurkako manifestazioa egin dute, Arabako Mendiak Aske, AHTrik ez Araba, Elikadura Iraunkorraren Aldeko Mugimendua eta Arratzua-Ubarrundiako Proiektu honi ez! mugimenduek deituta.



LAS KELLYS BARCELONA

Esplotazioz libre diren hotelen plataforma

ERREDAKZIOA

Lan Justu eta Kalitatezkoa Zigilua luketen hotelen plataforma sortu nahi dute, "Booking" plataformaren antzera, baina ostatu hartzen duen bezeroari langileen lan egoera duina bermatuz. Proiektua Kataluniako Kellyek bultzatu arren, Kataluniaz gaidikoa izatea nahi dute.

Kellyen Erreserba Zentrala egikaritu asmoz, Kataluniako Kellyen Sindikatuak diru bilketa abiatu du, proiektua finantzatzeko. Gutxienez 60.000 euro lortu nahi dituzte etikoa izango den Booking-en antzerako plataforma bat sortzeko, zeinak barnebilduko litzuzkeen esplotazioz libre diren hotelak. Proiektuaren xedea litzateke jendeak ostatu hartzea kalitate estandarrak betetzen dituen eta Kellyek erreprezentazio sindikala daukaten hoteletan.

2018an Generalitatean abiatu baina gerora gelditu zen ekimena bere gain hartu nahi izan du Kataluniako Kellyen Sindikatuak. Izan ere, urte hartan Catalunya en Comú alderdiak hotelentzako Lan Justu eta Kalitatezkoa Zigilua proposatu zuen, Kataluniako Parlamentuan onartu zena. Hoteletako eta pisuetako garbitzaileen prekarietateari aurre egiteko ekimenean aurrerapauso gutxi eman direla deritzote Kellyek ordea, eta hargatik, beren gain hartu dute ekimena aurrera ateratzeko egin-kizuna.

ZER BERMATZEN DU ZIGILUAK?

Lan Justu eta Kalitatezkoa Zigiluak bermatuko luke berau daramaten hoteletan garbitzaileak beren konbenioa errespetatuz kontratatzen dituztela, baita zerbitzuok ez dituztela azpikontratitzen ere. Horiez gain, besterik ere bermatuko luke: lan arriskuen prebentziorako legean betetzen direla, generoaren araberako soldata arrakalarik ez dela, zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboetako pertsonak kontratatzen direla, edota lan kontratuak mugagabeak izatea.

Proiektua abiatzeko aurrekontu minimoa lortu orduko plataforma sortzeari ekin-go diotela adierazi du sindikatuak, eta 2022rako nahiko lukete prest izan. Azpimarratu nahi izan dute proiektua ez dela Kataluniara mugatuko.

Liburuen suizidioa



ARITZ GALARRAGA

Gertatu zen lehen aldian ez nion garrantzirik eman: lanean ari nintzen, ordenagailu aurrean, zarata lehor bat entzun nuenean. Askotan gertatzen da gure etxean, inork zerbait lekuz kanpo utzi, leku ez bereziki seguruan, eta handik denbora batera zerbait hori lurrera erortzea. Gero, gainera, auskalo ur bila edo komunera altxa nintzenean, ez nuen ezer berezirik nabaritu, eta lasai jarraitu nuen lanean. Handik egun pare batera gertatu zen bigarren aldiz, bakarrik nengoela berriro, gertuago oraingoan; lehen eguneko kolpe lehorra errepikatu zen, baina ez hain urrun, ondoko gelan. Altxa nintzen begiratzera, lehen zarata gogoan, ez nuen ezer berezirik ikusi, ordea, ohiko anabasa pareta-lurretan. Txori batek leihoaren kontra kolpea hartuko zuela pentsatu nuen, gertatzen baita batzuetan. Hirugarren aldiz entzun dut zarata gaur goizean, ni nengoen gelan berean, eta argi eta garbi ikusi ahal izan dut zer gertatu den azken egunotan: liburuak erortzen dira apalategitik zorura.

Ea, kontaktzen ari naizen hau asmakizun bat dela pentsatu baino lehenago: liburuak dauzkagu etxeko gela guztietan, bospasei bizitzetan irakurtzeko beste, gehienak apalategietan txukun sartuta, gutxi batzuk azala erakutsiz, ikusleari begira: irakurri eta gero jartzen ditut hala, edo aurki irakurtzeko desioz, bai eta azal ederra dutelako ere, begientzako plazer. Hiru hain jarraian lurrera erortzeak zerbait esan nahi al du? Zerbait esan nahi al didate erori diren liburuak? Eta, galdetzen hasita, erori egin dira, edo beren buruaz beste egin dute? Jeloskortasunagatik, agian, eurekin apalategia konpartitzen duten liburu batzuk zutabeotan aipatu ditudalako, eta eurak oraindik ez? Irailetik aurrera ere, kontu handiagoz noski, arreta bereziz aukeratuta, irakurritako liburuak egongo dira zutabe hauen oinarrian. Konturatu bainaiz puskaz hobeak direla liburuez ari diren zutabeak. Eta, batez ere, ez dudalako nire erruagatik liburu gehiago suizidatzerik nahi. ●



ADUR

“ODOLETAN UTZI NINDUEN, BAINA JOTZEN JARRAITU ZUEN”

JAPONIAKO HAUR ETA GAZTE KIROLARIAK

Human Rights Watch erakundeari modu anonimoan kontatu diote Japoniako haur eta gazteek kirol entrenamenduetan jasaten dituzten tratu txarrak. “Entrenatzaileak esan zidan ez nituela entrenamenduak behar bezain serio hartzen, eta aurpegian jo ninduen denen aurrean. Odoletan utzi ninduen, baina jotzen jarraitu zuen”. “Waterpoloko entrenamenduetan, umeak ur-azpian mantentzea ohiko zigorra zen, arnasik ezin hartu”. “Beisboleko entrenatzaileak ostikoak ematen zizkigun eta pilota oso gertutik jaurtitzen zigun. Kaskoa jantzita genuelarik, batearekin jotzen zigun buruan”. **2021/07/20**



EKONOMIAREN TALAIAN

Agur lagunak



JUAN MARI ARREGI

Zutabe hau sinatzen dudan azkena da, astekari honek idazten jarraitzeko aukera eskaini badit ere. Argi utzi nahi dut guztiz eskerturik nagoela ARGIAk bere familian hartu ninduelako, nire egoera pertsonalagatik beste hedabide batean idazten jarraitzea ezinezkoa zitzaidanean. Pello Zubiria orduko zuzendariari esker, duela 25 urte hasi nintzen hemen. Orduz geroztik, askatasun osoz idazten aritu naiz astero gai sozioekonomikoei buruz, hainbat atal eta formatutan, azkena hemen, zutabe honetan.

Nire asmoa beti izan da gizarte kapitalista honen ondorioak agerian uzten dituzten datu objektiboak ematea, Hegoaldearen eta Iparraldearen artean bananduta dagoen eta bere subiranotasuna bilatzen duen herri bati ekarpena eginez. Egoera bidegabeak salatzeaz gain, kontzientzia herrikoia, antikapitalista, solidarioa, feminista eta ekologista sortzeko datuak eman nahi izan ditut, horrek borrokatzera eramango gaituelakoan, gizarte hobe, igualitario, berde eta solidarioagoa lortzeko.

Saiatu naiz ikusarazten ekonomia ez dela zenbaki eta estatistika hutsak biltzen dituen zerbait, ez dagoela BPGa, inflazioa, fiskalitatea, zorra, defizit publikoa eta antzeko adierazlez soilik osatua. Milioika emakume eta gizonek jasaten dituzte hitz horien ondorioak: langabezia, gizarte-bazterketa, pobrezia, soldata prekariora, laneko segurtasun falta, lanbide-gaixotasunak, soldata arrakala, miseriazko pentsioak, hipotekak, lurralde-banaketa... Hori guztia ere badago atzean.

Nahiago nuke nire asmoak balio izan badie irakurleei zorroa arrazoiez bete eta bakoitzak bere postutik borrokan jarraitzeko, jendarte burujabe eta justuago baten alde, beste herriei eta pertsonekin elkartasunean.

Orain amaitzen dudan bide honetan, ziur akatsak eta huts egiteak ere izan ditudala. Barkatu. Agur eta eskerrik asko irakurle, lankide eta lagunak. ●

ANALISIA



NORVEGIAKO ESKUBALOI FEDERAZIOA

Indarkeria zentimetrotan ere neurtu daiteke

▲ JON TORNER ZABALA

Ez dut oso gustuko, kirol kontuez hizketan, feminismoaren banderadun moduan agertzea, zale moduan agian gehiago baina kazetari gisa tarte gutxi eskaintzen diodalako emakumeen kirolari. Eta, egiten dudan bakoitzean, askotan delako matxismoaren indarkeria salatzeko, kirol lorpenak nabarmentzeko baino. Egunotako gertaera batzuek, ordea, merezi dute aipamena.

Txirrindularitza: Italiako Giroan, emakumeen lasterketarik inportanteenetan, antolatzaileek iragarri zuten zuzenean jarraitu ahal izango zirela etapa bakoitzaren azken hamabost kilometroak. Hamabost besterik ez. Ezin kexatu, gainera, iaz minutu bakarra ere eskaini ez zutelako, eta gauzak txukun ateraz gero akuilu izan zitekeelako datozen urteetarako. Kontua da, besteak beste 4G-arekin izandako arazoak medio, ez genuela hamabost kilometro ere ikusterik izan.

Hondartzako eskubaloia. Europako Txapelketan, Norvegiako jokalariek gizonezkoen moduko galtzak jantzita irten ziren Hungariaren aurka jokatzerako, bikiniarekin "deseroso, biluzik eta behatuta" sentitzen direlako. Erantzun ofiziala: galtza motzetan jokatuz gero deskalifikatu egingo zituzten, bikiniaren luzeera gehienez ere 10 zentimetrotako izan behar duelako. Atzera "bragatxoak" jantzi zituzten, baina Espainiaren aurkako partida jokatzerako ere galtza motzetan irten ziren, eta mehatxuei entzungor, halaxe jokatu zuten. Ordainetan, 150 euroko isuna jaso zuen bakoitzak. 2012ko Joko Olinpikoetan janzkera-arauak indargabetu zituzten, baina Nazioarteko Eskubaloi Federazioak ez du oraindik urratsik eman, hainbat herrialdeetako federazioak arauak aldatzeko eskatzen ari diren arren.

Futbola(-edo). Eurokopako finala jokatzen ari zen bitartean, ehunka ingelesek euren etxeak eskaini zizkieten aterpe bat behar zuten emakumeei, partidak eragingo zituen eraso matxistak zirela-eta. Ez sinestekoa da kontua. NCDV erakundearen arabera, Ingalaterrak jokatzen duenean indarkeria matxista %26 hazten da, eta gal-tzen badu %38. "Emakumeek indarkeria eta abusua jasaten dute egunero bikotekideen eta bikotekide ohien eskuetan; futbola eraso egiteko aitzakia da", dio NCDV-k.

Adinez txikikoak eta kirola. Begirada guztiak Japoniako Joko Olinpikoetan jarrita dauden honetan, txosten gogorra plazaratu du Human Rights Watch giza eskubideen behatzaile ezagunak. Txostenaren arabera, zigor fisikoak, tratu txarrak, gehiegikeriak eta sexu abusuak orokortutako joera dira Japoniako haur eta gazteen kirol entrenamenduetan. Erasotzaileak, ikerketaren inguruan irakurri ditudan testigantza eta analisisetan bederen, beti dira gizonezko entrenatzaileak.

Ez dakigu zerk huts egiten duen, gauza mordoak ziurrenik. Uneren batean heldu beharko da planto egiteko garaia. Ez soilik honen guztiaren "biktimiek", baita hariak mugitu edota gizartean eragiteko ahalmena duten erakunde eta kirolariek ere. ●

13/13 epaiketa bertan behera uzteko eskatu dute Europatik

ERREDAKZIOA

Epaiketa bertan behera uzteko eta auzipetuak kargugabetzeko eskatu du Demokraziaren eta Giza Eskubi-deen Aldeko Abokatuen Europako Elkarteak. Auzipetuei bidezko epaiketa baterako eskubidea urratzen ari zaiela salatu du.

KEZKA LARRIA

Elkarteak "kezka larria" adierazi du, 13/13 sumarioko epaiketan eta instrukzio fasean irregularitasun ugari atzeman dituelako. Gogoratu du abokatuek bost egun eman zituztela inkomunikatuta, beren bulegoak arakatu zituela Guardia Zibilak modu irregularrean, edo CNIk entzuketak egin zizkiela. Elkartearen irudiko, auzipetuak izaten ari diren pertsonak beren bezeroak ordezkatzegatik daude auzipetuta, "Turkian bezala".

TORTURA FROGATUAK

Epaiketan auzipetuek egin dituzten tortura salaketen arteko bat ofizialki frogatuta dagoela nabarmendu du elkarteak. Horrez gain, zuzenbide arloko Habanako Printzipioen arabera, gobernuen ardura da bermatzea "abokatuek beren lanbide funtzio guztiak betetzeko gai izango direla beldurrik, eragozpenik, jazarpenik edo interferentzia desegokirik gabe".



EITB

SUTEA BARDEETAN

NAFARROA. Uztailaren 20 iluntzean piztu zen sutea Bardeetan, Eguarasko barrutian, bildua izaten ari zen labore sail batean. Denbora tarte laburrean indarra hartu eta arboladi bateraino zabaldu zen sua. Nafarroako hainbat tokitatik joan ziren suhiltzaileak lanera eta hurrengo goizerako kontrolpean izatea lortu zuten, baina ingurumenak jasandako kaltea handia izan da.

HONDAKINAK

19 kilo

hondakin elektroniko sortzen du urtero Hego Euskal Herriko pertsona bakoitzak, batez beste. 2020ko *The Global E-Waste Monitor* txostenaren arabera, Europar Batasuneko herrialdeek sortzen dute zabor elektroniko gehien. Espainiako Estatuan urtero 888 kilo tonelada zabor elektroniko sortzen da (etxetresna elektrikoak, ordenagailuak, bonbillak, mugikorrak...).



EUSKARA. Berriozarko kiroldegiko tabernaren kontratuan euskara eskakizuna baliogabetu du Nafarroako administrazio auzitegiak. Navarra Sumari arrazoia eman eta taberna kudeatzeko kontratua "hizkuntzagatik diskriminatzailea" dela ebatzi du auzitegiak.



ALTSASUKO GAZTEAK. Estrasburgo Auzitegiak onartu egin ditu Altsasuko kasuan kondenatu zituzten zortzi gazteetatik biren defentsek aurkeztu zituzten errekursoetako batzuk eta aztertuko du ea epaiketa justu bat izateko eskubidea urratu zitzaizen.



FAXISMOA. Uztailaren 18an, 36ko Espainiako altxamendu faxista goraipatzen zituen eta mugimendu abertzale eta euskaltzaleen aurkako hainbat pintaketa egin zituzten Algortan, Erromon, Erandion eta Leioan. Horiek salatzeke elkarretaratzeak egin zituzten herritarrek.

ETIOPIAN ASPALDIKO OIHANEN AZKEN ALEEK BIZIARI EUSTEN DIOTE EHUNKA BASELIZAREN INGURUKO HARRESIEN BABESEAN

Azken mendean Etiopiak galdu ditu antzinako oihanik gehienak, nekazaritzaren, artzaintzaren eta herrialdean laborantza industrial neokolonialak eragindako goseteen presiopean. Alabaina, biodibertsitatez betetako azken baso zatiak geratu dira, fosil gisa, zientoka eliza eta ermitaren bueltan, bertako erlijioak sakratutzat salbaturik. Bitxi horiek zaindu, zabaldu eta elkarrekin lotzen ahalegintzen dira zenbait zientzialari naturzale.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Uda betea, oporrak, urrutiko aire ezberdinak usaintzeko irrika? Hona hemen, irakurle, bederatzi minutuko bidai labur baten proposamena. Vimeon daukazu *The church forests of Ethiopia* ("Etiopiako eliz-basoak") bideoa, Jeremy Seifertek egina. Alemayehu Wassie biologoaren ahotsak gidatuko zaitu.

Drone baten begiak erakusten du zuriz jantzitako fraide talde bat elizara bidean. Rastafarien gorri-hori-berdez tindatutako teilatudun eliza biribila, harresi txiki batez inguratua. "Etiopiako eliza ortodoxoak irakatsi digunez, eliz batek basoz inguratuta egon behar du eliz izateko. Edengo paradisuaren antza eduki". Droneak orain askoz goragotik erakusten digu eremua: eliza eta bere baso txikia soro eta zelai erabat soilduez inguratuak. "Behiala, Etiopiako mendialdea eten gabeko basoak hartuta zeukan. Nekazaritzak irentsi egin du. Elizak zaindu ditu azken oihan muturrek suntsiketarik. (...) Eliz-basoa nire haurtzaroko oroimenetan daukat iltzaturik. Meztatara joan ohi nintzen familiarekin jai egunetan eta esaten ziguten hemen otoitz egindakoan Jainkoak entzuten zizula. Horregatik daukagu arimazko konexio hain sakona basoekin".

Alemayehu Wassiek helburutzat hartu du eliz zaharron –ba omen dira 1.500 urte dituztenak– inguruko zuhaitziak aztertu eta zaintzea. Uharteko moduko 35.000 oasi txiki omen daude Etiopia

osoan barreiatuak, duela ehun urte arte lurraldea estali zuen biodibertsitate oparo haren azken arrastoak.

XX. mende hasieran lurraldearen ia erdia omen zegoen oihanez estalia; gaur %5era ez dira iristen zuhaitz multzoak. 120 urteotan aldaketa galantak nozitu ditu Afrikak, mundu osoarekin batera. Kasu honetan, basoen desagertzearen kausatzat asko aipatzen dira populazioaren hazkunde handia, nekazaritzaren eta batik bat artzaintzaren presioa eta 1974-1991 artean Etiopian agindu zuen erregimen komunistak elizaren lurrak baserritar gosetien artean banatu izana.

Aldiz, Wikipediak *Deforestation in Ethiopia* sarreran nabarmentzen duenez, jada asko okertuak ziren gauzak askoz lehenagotik, Haile Selassie enperadorearen garaietatik. Honek 1950etik herri-lurrak eman zizkien funtzionarioei eta gerrako beteranoei. Baina, batez ere, garai haietatik sartu zuen muturra laborantza mekanizatuak Etiopian, batik bat mundu mailako lan banaketa neokolonialean Lehen Mundu aberatsak erabaki zuenean Afrikako eskualde txiro hau bihurtzea kafe ekoizle nagusietakoa: kafea antigoaleko agro-oihangintzan haztea baztertuta monolabore gisa lantzea nagusitu zen, zuhaitzak eraitsi beharreko oztopo bihurtuz. Wikipedian honela laburbildu dute gaurko egoera: "Etiopiako baso gabetzea eragin dute hamarkadotako gobernu eta instituzio aldaketek, lurren jabegoan dagoen

segurtasunik ezak, jendeen lekualdatzeak, populazioen ugartzeak eta nekazaritzan bezala azpiegituretan egindako eraikuntzek. Laborariak sufritzen dute bai txirotasunagatik eta bai elikadura segurtasunik ezagatik eta ezin dute beren bizkar hartu oihanen babesa. Munduan bezala Etiopian aginte ekonomikoa daukatenak murgilduta daude baliabideak berenganatzeko lehian".

EDEN TXIKIAK ZABALDU

Eliza ortodoxoa bera ere lur jabe handietakoa izaki, urtero maizterrei uzta-zen zati handi bat ordaintzera behartzen zituena, seguru baduela erantzukizunik zeharritzen desagertze masiboan. Baina 2021era iritsita, gauza da milaka fraide otoitzean, meditazioan eta eskean bizi diren eliza eta ermitak atxiki dituztela munduko biodibertsitateari aberatsetakoa izan zenaren azken bitxiak. Naturaren berreskuratzeko itxaropen baxarra horiek zaintzeaz gain zabaltzean datzala sinetsita ari da Wassie.

Alemayehu Wassie Hego Gonder eskualdean (Addis Abeba hiriburutik 300 kilometrorra) sortu zen 1971ean, biologia ikasi eta 2007an Holandan doktoregoa buruturik gaur Bahir Darreko unibertsitatean da irakasle. Mexikon Biologia Tropikalaren Elkarteak gonbidatu zuen biodibertsitateari buruzko nazioarteko biltzar batera eta bertan Etiopiako naturaren gainbehera azal-



HEGO GONDER

eskualdean, Debre Mihret Arbiatu Ensesa eliza biribila, teillatu koloretsuz hornitua, inguruan duela harresiz babestutako baso txikia. Argazkia: Kieran Dodds.

tzean erakutsi zuen tristurak hunkitu zuen, antza, Meg Lowman oihanetan berezitako ekologo iparramerikarra. Aurrerantzean honek lagundu dio Wasieri nazioartean bere asmoa zabaldu, beharrezko diruak lortu... eta ermitetako fraideak konbentzitzen.

Praktikan oso gauza xumea da Alemanyehu Wassieren estrategia: elizen inguruko harresiak berritu eta babestutako eremuak zabalteko zirkulu zabalagoko harresi berriz osatu: "Hemengo eliza bat harresi batek inguratzen du beti; jendeak harresi barnea dauka gune sakratutzat. Beraz, eraman dezagun elizatik harresia urrunago basoa osorik hartu arte, jendeak hura ere sakratutzat har dezan. Harresi horrek ez dio sarbidea eragozten jendeari baina bai aziendei

eta horrela basoaren berritzea eta osasuna zaintzen dituzu".

Etiopian ere ugaritzen ari dira baso berrien landatzeak baina azkar hazten diren espezieak erabiltzen dira gehienetan, sarriegi eukaliptoak han ere. Zuhaitz-monolaboreok, ordea, ur gehiegi kontsumitzeaz gain, onura baino kalte gehiago dakarkiete lekuko biodibertsitateari. Horregatik tematzen dira Wassie eta Lowman isolaturik geratu diren baso ñimiñoak babestu, ahalik eta gehien zabaltean lagundu eta basoak elkarri lotzen. Orain artean hogeit bat elizaren inguruak hesitzea lortu dute eta gainerako ermita askotako fraide eta inguruko herritarren artean ikastaldiak eman. Inguruko nekazariek eraikitzen dituzte metro beteko hesiok, bide batez soroetatik harriak ate-

rateko probestuz. Eta herritarra basoan jabetzen da honek emandako onurez: eguzkiaren garretatik babestuz ingurua freskatu eta hezetasunari eusten diote, klase askotako animaliak –jadanik hemen besterik ikusi ezin direnak– eta izaki bizidunak aterpetzen, oroetan polinizazioa bermatzen, gizakiei zura, fruituak eta erremedioak eskaintzen...

"Hala ere, arazoa da jendei iruditzen zaiela basoak betikoak eta betirakoak direla. Baina hemen ez zaigu beste kopiarik geratzen. Jendeari erakutsi behar diogu galtzeko arriskuan gaudela. Elizbasoak dira gure mapak, hauetan ikusten dugu zer ziren gure basoak, gure biodibertsitatea. Altxorrok bizirik daukagunez, posible genuke lehengo paisaia berreskuratzea". ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

NINA MÛR
eyewear

Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak



Hernani 23, 20004 Donostia · 943 420 624 · zinkunegioptika.com



Saúl Gil Berzal

GORRI ETA GARDEN



ERRIOXAKO JATORRI DEITURAN ERABAKI GUZTIAK DIRA BODEGA ABERATSENEN ALDEKOAK



San Juliango sakanan elkartu gara, mahasti artean. Harro erakutsi dizkigu landareak eta bertako parajeak. Alto de la Hueserako trikuharrian ardo pixka bat edan dugu gero. Eta bazkalduz egin izanak eragin du elkarrizketak tenpranillo eta garnatxa ikutuak izatea.

 MIREN ARTETXE SARASOLA  DANI BLANCO

Txikitan ardo upelera erori zinela esan daiteke?

Halako zerbait. Mahasti eta ardo artean jaio nintzen ni. Amaren eta aitaren alde-tik ardogileak dira aitona-amonak. Nire gurasoek haien bi abizenak elkartuta osatu zuten Gil Berzal bodega. Eta nire anaia eta biok bodegaren abizenak ditugu, nola ez. Ez nekien txikitatik honetan lan egingo nuenik, ordea. Ardoaren erritualak asko gustatu izan zaizkit beti, hori bai. Traktore txikiarekin aritzen nintzen jolasean mahastian, ama eta aita biak aritzen zirelako bertan lanean. Hemen hala izan da beti. Herriko gizon eta emakume guztiak aritu dira mahastietan lanean. Eta upeltegian orduak ematen nituen barrika artean. Ardoa gurean ez da edaten den zerbait soilik.

Beti jakin duzu ardogintzan arituko zinela zu ere?

Enologia ikastea erabaki nuenean, gehienbat kuriositateagatik izan zen. Benetan ez nekien hortik jarraituko ote nuen. Mendizalea naiz erabatekoa, eta mendi-gidari izateak ere izugarri erakartzen ninduen. Baina enologia ikasi eta segituan etxeko upeltegian ardoak elaboratzen hasi nintzenean, orduan harrapatu ninduen erabat ardogintzak. Ohartzera gure bodegan egiten ziren ardo gehienak elaboratzen ari nintzen, jasotako uzta-rekin zein ardo nola egin erabakitzen... Gure mahastiekin zer egin zitekeen jakin nahi nuen, gure mahastetik norainoko ardoak egin ote zitezkeen. Zenbat eta gehiago ikasi orduan eta handiagoa grina. Enologia ikasitakoa kanpoan ikusita-

koarekin eta gurasoen eta aitona-amonen jakintzarekin uztartu nahi nuen.

Eta hasieratik egin zenuen mahasintza ekologikoaren alde.

Bitikultura gustatu izan zait beti. Mahastia aldatzen ikustea, landarea bera behatzea... Gure aitona-amonak bitikultura ekologikoa egiten zuten, ezinbestean. Iraultza berdea heldu zenean, 80ko hamarkadan, traktoreak sartu ziren, belar-pozoiak, fungizidak eta bestelako produktu kimikoak. Garai hartan jende guztia hasi zen euria eta eguzkia baino ezagutzen ez zuen lur hartara denetik botatzen. Sekulako kalitatedun lurra kimikoki potentziatuta... izugarriko indarra hartzen zuten mahastiek. Gero ikusi da horrek epe luzera nolako degrada-

Saúl Gil Berzal

GUARDIA, 1980



Ardogileak zituen aiton amonak. Ardogileak gurasoak. Eta ardogileak da bera ere, bere abizen berak dituen Gil Berzal upategian. ABRAko (Arabar Errioxako Bodegen Elkarteko) lehendakaria da gaur egun.

zioa ekarri duen, eta gaur egun argi dago ez dela bidea. Baina orduan, begi bistakoa zen –literalki– produktu horiek onurak zekartzatela.

Nire aitak, ordea, –ez baitezpada bisionarioa zelako, baina– bere erara segi zuen. Bazegoen zerbait berarekin bat ez zetorrena. Ez zuen inondik inora irudikatzen gertatuko zen guztia, baina intuizioa eta kaska gogorkeria, biak izan zituen. Jende guztia herbizidak botatzen eta gu han, aitzurra eskuan. Kritika ugari entzuten genituen... Baina horri esker gure lurra sano dago, eta nik biodinamikaren bideari ekin nionean, abiapuntu ezin hobea izan nuen.

Zer da bitikultura biodinamiko?

Rudolf Steinerrek jarri zituen nekazaritza mota honen oinarriak. Bizitzaren dinamikarekin batera joatea da kontua, azken finean. Pozoia bota ordez kamamilaz edo txikoria-belarrez eginiko prestakinak erabiltzea, esaterako. Edo lur-lanak egiteko astroen eraginak kontuan hartzea. Funtsean, lurzoruen, landareen eta animalien arteko erlazioa orekan dagoen sistema gisa ulertzea da. Nekazaritza interbentzioa izanik ere, ezinbestean, interbentzio hori oreka horrekiko errespetuz egitea. Baso baten ekosisteman dagoen auto-erregulaziorako gaitasuna laborantzara eramatea, ahal den heinean. Lan asko egitea, eta aldi berean naturaren mende bizi garela onartzea, halabeharrez. Aurtengoa bezalako urte batean egin duen euri ugariarekin, adibidez, ez esku-hartzea mahatsa galtzea litzateke. Lan izugarria egin behar izan dugu hezetasuna kontrolatzen. Eta hala ere, produkzio galera bat asumitu behar izan dugu. Ikuspegi honek hori ere badu. Urte konplikatu baldin badator eta harria egiten badu edo mildiua baldin badago, onartu beharra daukazu ekoizpen zati bat galduko duzula.

Badu abantailarik, bestalde?

Dena da abantaila. Ingurunea zaintzen duzu, ez soilik ekosistema sanoak sortzen dituzulako, paisaia ere zaintzen duzu, eta bertako jendea ere bai. Jaktitate bat ere mantentzen duzu, eta

osasuna ere bai, bai langileena eta bai kontsumitzaileena. Hemen jende asko hil da produktu kimikoak botatzen aritzeagatik. Eta ardoa bera ere hobea da produktu horiek gabe. Egia da erromantikoa eta burugogorra izateaz gain ekonomikoki jasagarria ere izan behar duzula, noski. Baina niretzat ez dago beste aukerarik. Bestela lan egiteak ez luke zentzurik niretzat. San Juliango sakanera joan eta txoriak entzutea. Goizean goiz bake horretan hektarea bat mandoarekin goldatzea. Hori gabe zertarako? Badakit aberearen ordez traktorea erabilita bost aldiz denbora eta neke gutxiago izango nukeela, baina gustatu egiten zait. Zer egingo diogu ba?



Badakit aberearen ordez traktorea erabilita bost aldiz denbora eta neke gutxiago izango nukeela, baina gustatu egiten zait. Zer egingo diogu ba?"

Askotariko lanak daude gurean, horrez gain. Oraintxe mando batekin goldatzen ariko naiz eta oraintxe Skype bidez korear erosleekin negoziatzen; beste egun batean nekazaritzatresna bat konpon-tzen, edo anaiarekin eta mahastiko lan taldearekin egitekoak kudeatzen, barrika bat betetzen edo ardoa botilaratzen... Ardoaren zikloa garaian arabera ere asko aldatzen da.

Nolakoa da ardoaren zikloaren araberako bizitza?

Orain, mendema aurreko garaian, ekaitzen beldurrez bizi gara. Zorionez lo onekoa naiz, baina sufrimendu handiko garaiak dira. Gaur eta bihar, adibidez, lehertzeko arriskua dago. Gero aste batzuk lasaiak omen datoz. Egun hauetan hor egoten gara mahastizainak Whatsapp taldeetan egurrean. Bailararen alde batetik bestera lainoak norantz doazen abisatzen aritzen gara. Martxoan eta apirilean kimu berrien garaia izaten da, landarea ahul dago eta zero azpiko tenperaturak egon daitezke. Orduan ere mahasti osoa izorratu daiteke eta urduritasun handiko garaia izaten da. Udan, ekaitzak ekaitz, garai lasaia izaten da lan aldetik. Irailaren bukaeran eta urrian mahatsa jaso behar izaten da, eta hor ere noiz eta nola jaso... Estres handiko garaia izan ohi da. Eta lan askoko garaia ere bai. Aste eta jai, ordutegirik gabe. Urte osoko lana hor jokatzen dugu eta ezin dugu hanka sartu.



Mahats-bilketa aurreko garaia da politena, niretzako. Hamabost egun horiek. Beranduegi da atzera egin eta ezer zuzentzeko, egindakoa eginda dago, eta tentsio hori hor dago, baina hor ikusten duzu zer eman duen lurrak, nolako urtaldia atera den... Mahats hori da horgei urtez botila batean sartuta egongo dena. Magikoa da. Kaos handiko egunak izaten dira baina erronka zoragarria da.

Eta gero barealdia dator. Azaroa la-saia izaten da, eta lan ona egin baduzu satisfazio handia da dena bodegan dagoela jakitea eta sentitzea. Abenduan, Eguberriei begira jarri eta bilera garaia izaten da ardoa saltzeko. Kimatzea ere hor hasten da, eta lan komertzialarekin batera berriz mahastiko lanari ekiten zaio urtarrilean. Ontzi-al-daketak egin, ardoak garbitzen hasi... Eta udaberriari kimu berriak hazten hasten dira beste behin, eta hor hasten da saltsa, berriz ere.

Behin mahatsa jasota ere upategian erabakiak hartzen segi behar...

Bai. Bodegako lanak ere izugarritzko garrantzia du. Gure filosofia, hala mahastian, nola upategian, ahal bezain gutxi esku-hartzea izaten da. Eta, aldi berean, mahatsak berak eman dezakeen ardorik onena egitea. Kontua ez da naturaltasuna muturrera eramatea; mahatsa barrikan sartu eta bere horretan uztea.

Temperatura kontrolatzeko eta hainbat parametro erregulatzeko gaitasuna dugu eta beharrezkoa da baldintza onenak bermatzea prozesuak ahalik eta garbien eman daitezten. Esku hartzea ez da berez kaltegarria. Hartzidura amaitu ondoren, monje zistertarrek ardoa zuringoz argitzen zuten XII. menderako. Ardoa zaindu behar da upelean, ozpin du ez dadin, birfermentatu edo oxidatu ez dadin... Horretarako dago enologia. Eta horretarako dakigu dakigun guztia. Besterik da kontrolatu, edo eragin dezakegun hori guztia zer indartzeko eta zer estaltzeko egiten dugun.

Zer da zuretzat ardo ona egitea?

Ardo baten helburua hain da sakona, ez dugula inoiz ulertuko. Mahastian bertan, eta bodegako hartitzean, milaka prozesu gertatzen dira. Ardo baten baitan dago hilabetetan zehar mahasti horretan egin duen eguraldia, lurreko mineralen ezaugarriak, eta upelean gertatutako guztia. Bizitza bat ez da nahikoa hori dena ulertzeko. Orain arte dakigun guztia jakinda ere, hainbeste dira faktoreak...

Elaborazioak eta enologoaren eskuak eragin handia du, noski, eta erabaki batzuk hartzea derrigorrezkoa da. Baina erabaki zuzenak hartzeko beharrezkoa da mahatsa bera irakurtzen jakitea. Eta horretarako lurra ulertu



PAISAIA BAT BOTILAN

“Gure partzela batzuetatik ardo bereziak ateratzen ditugu. Lursail bakoitzak du bere paisaia, eta paisaia horren marrazkia doa botilaren etiketan. Gure aitak egindako marrazkiak dira. Bere eskuz marraztutako paisaia horietan gauzak gertatzen dira urtean zehar. Lur mota bat dago, eguraldi jakin bat egin du. Eta bertan jasotako mahats ale bakoitzak du urte horretan zeru eta lur zati horretan gertatu den guztiari buruzko informazioa. Ardoa eguzkiak ondutako euria da, funtsean. Eta leku jakin bateko mahatsak zapore eta ñabardura erabat bereziak ditu. Ardoa egiterakoan ezaugarri horien izaera bera ez desegitea da. Mahastian bertan zein upategi barnean ahal bezain gutxi esku hartzean, legamiarik eta sulfitorik erantsi gabe, gardentasun hori mantentzen saiatzen gara. Egia bat botilaratzen, azken finean”.

behar da. Eta euria, eta haize korronteak... Urtez urte hobeto ulertzen eta irakurtzen ditut San Juliano sakana, edo Alto de la Hueserako lursaila, esaterako. Zenbat eta hobeto ulertu leku horren izatea bera, eta leku horrek ematen duena, hobeto irudikatu dut eman dezakeena, eta finago marraztuko dut mahats horretatik eratorritako ardoa. Baina ziur aski hilko naiz ia hurbildu ere egin gabe mahasti horretan gertatzen den errealitatera. Eta are gutxiago mahasti horrek eman dezakeen mahatsetik egin litekeen ardorik onena usaintzera. Baina bidean egotea bera da polita.



Mahatsa bildu osteko satisfazio horretaz gain, presioa ere sentituko duzu, ezta?

Izugarria. Presio ona, ordea. Bizitza batean ez daude infinitu aukera ardo ona egiteko. Ez dakit zenbat denboraz biziko naizen. Baina orain 40 urte ditut eta ez dut uste beste 40 urtez ardoa egin ahal izango dudarik. 30 bat saiakera edo izango ditut bizitza honetan. Ardogintzan horrelaxe da, urtean aukera bat daukazu ardo ona egiteko. Eta hanka sartzen baduzu, urtebeterako sartu duzu. Probak ere egiten dira, baina egitekotan txikiak egin behar dira, bi edo hiru proba urte berean... Mahatsa alferrik ez galtzeko. Ardo Coca-Cola bezala ere egin daiteke, noski, dena kontrolpean izanik eta errezeta bati segika. Baina 50 urtetan asperetzeko denbora emango dizu. Gure egiteko moduarekin 50 urte ez dira ezer.

Gure bodegaz kanpo, esperimazio proiektu batean ere aritzen naiz kide batzuekin batera, eta proiektu horretan berderatzi edo hamar hartzidura desberdin egiten ditugu urte bakoitzean. Baina urtero mahats-biltze bakarra dago. Sukaldari batek plater bat ondo ateratzeko behar adina aldiz errepikatu dezake prozesua, behin eta berriz, eta astebetean hamabost saiakera egin ditzake. Gurean ezinezkoa da. Prozesu mantsoa da. Saiakera bat egin dezakezu aurten, baina ez duzu berehala jakingo ondo atera ote den. Bi, hiru urtez ardo horren eboluzioa jarraitu behar duzu. Eta ondo ala gaizki atera, beti ez duzu zehazki jakingo zeintzuk izan di-

ren arrakasta edo porrota eragin duten faktoreak... Horregatik da belaunaldien arteko transmisioa ere garrantzitsua. Elkarrengandik ikastea ere bai. Eta norbere intuizioa eta sena garatzea.

Ardo partzelaka egitearena ez da ohikoa inguruotan, ezta?

Borgonian erabat normala dena ezohikoa da hemen eta ez da beti ulertzen. Nik ez ditut ardo onduak eta erreserbakoak egiten. Nik partzela-ardoak egiten dut. Lursail honetan lurra hondartsuagoa baldin bada eta hau, berriz, kare-harrizkoa, azidoagoa, ez du zentzurik bateko eta besteoko mahatsak nahasteak. Edo 30 urteko mahasti bateko mahatsak 100 urteko mahastietakoekin nahasteak. Askotan galdetzen didate, "hau erreserbakoa edo ondua da?" Ez bata ez bestea, hau ardo da. Hango lursaileko urte jakin bateko ardo. Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuaren logika horrek ez du zentzurik niretzat. Azken batean, erreserbakoa ardo, ondua edo urteko ardo bereizten dituen bakarra barrikan eta botilan pasatako denbora da. Hori bai, barrikan 225 litrokoa eta haritz egurrez egina behar du. Ardoak urtebete egiten badu upelean eta urtebete botilan, ondua izango da. Upelean urte bete eta botilan bi ematen baditu, ordea, erreserbakoa. Eta nik ondua bat erosi eta etxean edukitzen badut urtebetez? Zer da? Txorakeria bat da. Kalitatea ez dator upelean edo botilan emandako denboratik. Kalitatea lehendik dator.

Hortik Errioxako Jatorri Deitura

Kalifikatuarekiko kritika?

Arrazoi asko daude Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuarekiko kritiko izateko. Hasteko, zalantzan jar liteke Errioxa esaten diogun eremu zabal honetako mahastiek ba ote duten ezer amankomunean. Guardian, Haron edo Calahorran oso lur eta klima ezberdinak daude. Eta punta bateko eta besteoko mahatsak nahastuz egindako ardoak jatorri deituraren etiketa izango du. Horrek eragiten duena da, besteak beste, bodega handietako jabeek mahastizaleei mahatsa erosten dietela ezker eskuin, ardo

kantitate handiagoa ekotzi ahal izateko. Eta merkatuaren logika merkatuaren logika da. Prezioa dirua duenak jartzen du. Zuk saldu nahi ez badidazu, beste batek salduko dit.

Bodega txiki askok ardo egiteari utzi diote, 70-80ko hamarkadetan ardo egiten zuten erdiek, beharbada. Bodega batzuk ez zeuden prest aldaketarako, hori ere hala da. Nire aitona ardo ia guztia upategian bertan saltzen zuen, garrafoietan, etxetik mugitu ere egin gabe. Botiletan eta etiketarekin saltzea kontu berria da hemen. Gaur egun komertzializazioa beste kontu bat da. Ingelesa jakin behar duzu, frantsesa baldin badakizu hobe... Bitikultura eta enologiaz jakiteaz gain, marketinaz jakin behar duzu... aldaketa izugarria izan da. Aldaketa hauetara egokitu ezinak ito ez dituen bodegak bodega handiagoei ito dituzte. Batzuek ez dute mahatsa saltzen ere dagoeneko. Mahasti osoak saldu dituzte. Talde handi bat etortzen zaizu etxera, txeke potolo bat jartzen dizu begien parean, eta kito. Hemengo lurra orain enpresari handienak dira. Haiak ez dira hemen bizi. Ez dute hemen lan egiten ere. Baina Errioxako marka dute, upategia hemen dagoelako.

Eta ezinezkoa da gurpil zoro honetatik ateratzea Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuaren baitan. Izan ere, erabakiak hartzeko bozkak salmenta bolumenaren arabera banatzen dira. Beraz, ardo litro gehien saltzen duenak du bozka kopuru handiena. Sistema horretan ardogile txikiak ez dute inolako aldaketarako gaitasunik eta hartzen diren erabaki guztiak izango dira bodega aberatsen aldekoak. ●



Ustezko aurrerakoiak Kopenhagen eta Washingtonen

Sei hilabetean garbi geratu da Joe Bidenen administrazioak kanpo esku-hartze handiagoa izango duela Donald Trumpenak baino. Biden demokraten tradizio inperialistaren bertsio klasikoa da. Aurreko presidentea bezala, hau ere aho bero bat da eta horregatik, diplomazia arloan aspaldian egin diren adierazpen baldarrenak burutu zituen Vladimir Putin hiltzailea zela esanez. Baina ez denez Trump ez da ezer gertatzen.

Hemeroteka zabala dugu Bidenen adierazpenekin herriak estigmatizatuz edo barrezka esplikatzuz nola eman dituen aginduak beste herrialde batzuetako agintariek bere nahiak bete ditzaten bere interes pertsonal ustelen mesedetan. Bidenen familia inguratzen duen nazioarteko influentzia trafiko kasuei buruz datu objektiboak daude, nahiz eta AEBko presidentek Trumpek egiten zuen bezala *fake news*-ak direla errepikatuz ezkatatu nahi dituen. Halere, bien artean bada diferentzia handi bat: Bidenen kontrako informazioak isilarazten saiatu dira hedabide eta sare sozial nagusiak une oro.

Edward Snowdenek filtraturiko dokumentazioari esker dakigu NSAk 2012an munduko komunikazioak era masiboan zelatzen zituela: herritarrenak, etsaienak eta aliatuenak ere bai. Biden Obama administrazioiko presidenteordea zen orduan. Besteak beste, aurten jakin dugu Angela Merkel zelata-

Danimarkak historia inperialista luzea du eta honen gainbeherarekin batera anglosaxoien, eta bereziki AEBen, aliatu hertsia bilakatu zen Eskandinavian

tzeko NSAak Danimarkako inteligentzia zerbitzuaren lankidetzatza izan zuela 2012 eta 2014 artean, Kopenhagen ezkerrek agintzen zuen garaian.

Danimarkak historia inperialista luzea du eta honen gainbeherarekin batera anglosaxoien, eta bereziki AEBen, aliatu hertsia bilakatu zen Eskandinavian. Horregatik, daniar gobernua beti dago prest herrialdeak bonbardatzeko eta inbaditzeko, nazioarteko legedia hautsiz ere bai, 2003an Iraken bezala. Industria kulturala ez da atzean gertatzen, Borgen telesail arrakastatsuen esku-hartze inperialista humanitarioaren doktrinaren pilulak ematen dizkigu, ahaztu gabe NATOK begitan hartuta dituen etsaien kontrako ipar amerikar estiloko propaganda zatarrak.

Halere, hedabideek Danimarkaz nagusiki ondo hitz egiten dute bere ongizate estatu sendoari esker. Hau egia bada



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

ere, kontutan izan behar da, alde batetik, bere aberastasunaren jatorriaren parte bat kapitalismo zentralerako potentzia inperialista eta kolonialista gisa lortu duela eta, bestalderetik, errefuxiatuekiko eta etorkinekiko duen politika oso oldarkorra dela.

Europar herrialde batzuk oso estigmatizatuak izan dira beraien herrialdeetara joan nahi ez duten baina Mendebaldeko bidean harrapatuta geratzen diren etorkinekiko eta errefuxiatuekiko duen jarreragatik. Ez da kasualitatea estatu horiek dituzten posizio geopolitikoak ez izatea NATOK hertsiki bultzatzen dituenak; Danimarka aldiz, aliantza atlantiarrak eta interes estatubatuarrek dituzten esentziekin oso lotuta dagoenez, ez dago lerrobururik Danimarkako gobernu ezkeriarrek errefuxiatu eta etorkinen kontra duen politika oldarkorraz, Europar Batasuneko gogorrena seguruenik.

Gauzak ez dira oso desberdinak AEBetan. Orain Biden dagoela presidentetzan, migrazio politika ez da aldatu. Areago, Guatemalan Kamala Harris presidente ordeak etorkinei zuzendutako mezu batean esan zien "ez etortzeko" AEBetara eta Biden administrazioak akordioak iragarri zituen Mexiko, Guatemala eta Hondurasekin mugetan tropa militar kopurua handitzeko etorkinen bidaiak oztopatu asmoz. Baina ez da ezer gertatzen, aurrerakoiak omen daude eta Kopenhagen eta Washingtonen. ●

Katu gatibuaren kronika



BEA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Amaierarik gabekoa gertatzen ari zait uda, aitortu behar dut malurusi.

Azken denboretan, etxeakoak, maisuak, ikusi ditut jo hara eta jo hona, egonaldiz egonaldi, batean mendira, bestean lagunartera, bestean manifestalditara, kontzertutara... Gero eta gutxiago daude etxean. Bitartean, ni, Pitxitxi, hementxe, loaldi eta gaueko ehizaldien artetik, begi artekatik zain, ea noiztik noizera agertzen zaizkidan. Egia osoa aitortzeko, beldurtzen naiz tarteka: eta ez balira itzuliko? Ahantzi-ko banindute?

Iaz, izan zuten garaia, ez baitziren alde hauetatik lekutzen. Nardagarriak bihurtu zitzaizkidan, egiazki. Goizetik arrats nituen inguruan. Haizatzen ninduten gela batetik bestera, bisio-konferentzia zutela eta nik dakit zer, nehork ez ninduela ikusi behar pantailaren bestaldetik, ez zuela serio eginen, profesional hots, alfer plantak zirela, erosotasun indezentea katua belaunetan jardutea. Hizketa gaiak oro zituzten eritasun bati buruzkoak, txertoa bai ala ez, amatxi-rengana itzulia ote eta holakoak. Eta ez dizkizuet aipatzen astebeteko isolamendu sanitarioaren asteko komeriak! Ez omen zen bizirik. Haiek ziotela! Eta

nik niola intimitate gutxi! Behintzat ez nuen arrotzen usainik eta ferekarik jasan beharrik, ez lagun arteko bateratzerik, ez aperitifa zaratatsurik, eztabaidarik, familia bazkaririk, ez haurrik buztanetik tiraka. Gaitz-erdi.

Hastapenean kexu, baina azkenean jarri ziren ongi bizimoldeari. Etxezulo hutsak bihurtu arte. Nehork ez zuen bulegora edo eskolara berriro joateko gogorik. Pentsa! Ai-aika alde egiten zuten goizetan.

Poztu nintzen uda hurbildu zenean, poliki-poliki, hasi baitziren gutxiago hemen gaindi egoten. Hastapenean, bizi sinple eta animatura itzultzen zirela zirudien. Baina laster deabruaren mar-txa izan zen hauena. Beti zegoen filma bat ikusteko edo kontzertu baterako moldea. Euskararen kontrako eraso bat nonbait izaten zen ber, mobilizazioetan ziren. Hilabete bakarrean hiruzpalau aldiz, ongi gogoratzen banaiz. Aspaldian ez bezala, hots. Alta, irratietatik zabaltzen ziren zertzeladetan harrapatu izan nuen euskara bide onean zebilela. Etxebizitzaren arazoa arrazoi bat gehiago izan zen, hor ere leku bezainbat problema. Arbonan pasa zituzten bi egun. EHZN beste bi egun iragan ondolan. Joan-etorri bakoitzaren ondotik

kexaka itzultzen zitzaizkidan, bideetan gaindi ezin ei dela ibili, turismo masiboarengatik, Airbnb delako bat kausa, garraio politikak ez duela piperrik balio, beti gauza bera dela, deus ez dela kontpontzen, denetan egon beharra dagoela. Amnesikoak ote dira? Ez dakit ohartzen ote diren betiko gaiak direla, betiko arazoak.

Eta horra. Zerotik ehunera pasa zaizkit. Udako etenaldia hasi denetik, gainerakoari gehitu behar mendi txangoak, hondartzan egun pasak eta ilunabarren ikusteak. Bukaerarik sekulan izanen ez duela dirudi. Bederen orain arte, ez dute ahantzi ene katiluetan uztea bizirauteko doia. Ez da luxuzkoa, kroketa meta bat eta *pâté* bat. Urarengatik, ez dut kezkatzerik: auzoko ur txirripara joanen naiz.

Atzo goizean, autoa kargatu eta ospa egin zuten, ulertu ez nien leku batera. Abian zirela ohartzeko artean, eskaileratan behera etortzeko denborarik ukan gabe, atea klask hertsia zuten eta gakoari bi itzuli emanak. Kaka zaharra! Ea noiz arte goaitatu beharko dudan. Ez nuen uste nehoiz holakorik erraitea: berantetsia dut iraila, itzul daitezela lan eta eskolara, beste gisaz, hala segituz gero, kronika baino testamendua baitut idatzi beharko. ●



IÑAKI BARCENA
EKOLOGISTAK MARTXAN
TALDEKO KIDEA

Piztuko dugu sua?

Iraultza: Hitz potoloa eta zaharkitua omen. Historian atzera begiratzeko soilik balio duen kontzeptua, batzuen ustez. Post-modernismoaren etorrerarekin bere eduki eraldatzailea galdu omen zuen antza, nahiz eta zibilizazio krisi oso larri batean murgildurik egon. Ez al ditugu patriarkatua, kapitalismoa, teknolatria eta prometeismoa, arrazakeria edo militarismoa irauli behar? Iraultzaile askoren ustez helburu horiek Estatuaren boterea hartzearekin batera lor zitezkeen. Orain badakigu horrekin “bakarrik” ez dela posible harreman zapaltzaileekin amaitzea. Agian behetik, tokiko esparru komunitarioetatik hasi behar ditugu kapitalismoaren haratago “iraultzak”. Txikiak baina zabaltzeko gogoz egindakoak. Lokalak baina beste askorekin koordinatuak, hots, sektarismorik gabekoak. Xumeak baina eredugarriak. Pertsonen duintasuna eta “bizitza ona” erdi-erdian jartzen dituzten esperientziak. Gatazkak askatasunaren eta berdintasunaren sorburu kontsideratzen dituztenak eta utopiak eguneroko ogitzat hartzen dituztenak. Eduardo Galeanok zioen moduan, utopia dugu ibiltzeko balio duen zerumuga iraunkorra, iparrorratz gidaria. Horrela ulertzen dugu iraultza.

*Txiki*en ekimen berri bat antolatzen ari da. Hiru urte pasa dira Zubietan (Gipuzkoa) 400 lagun inguru kanpaldian bildu ginenetik eta bi urtero berriro

elkar topatzeko erronka jarri genuen. Pandemia amaiezina tartean, aurreko saio berri bat ari da antolatzen Euskal Herriko eta beste herrietako aktibisten bilgunea berreraikitzeke asmoarekin. Manifestuak dionez: “Ez aurrez prestatutako bide-orriak aurkezteko, ez eta ziurgabetasuna behin betiko erantzunen bidez argitzeko ere. Ez dago halakorik. Erantzunak baino gehiago, galderak plazaratu nahi ditu kanpaldiak, eta horien inguruan elkarrekin hausnartzeko, elkarrekin borrokatzeko eta elkarrekin eraikitzeke espazio komuna eskaini nahi die askotariko militanteei”.

Akanpada aurreko Arratian izango da Basoa proiektu eta gune komunitarioan, abuztuaren 24tik 29ra. Antolatzaile lanetan ibilitakoen artean kezka bat izan da hasieratik: elkarrekin egongo garen egunetan, Ongi Bizitzearen saio orokor bat egin nahi dugu. Ume eta jubilatutako emakume zein gazte, bertokoak eta kanpotik etorritakoak, denak batera, kapitalismoak eta patriarkatutik harago dagoen bestelako gizarte posible hori irudikatzen eta bizitzen.

P.D. Prestaketa lanetan egonik, beste deialdi bat etorri da: Atxondon uztailearen 30etik abuztuaren 1era AHTren aurka egingo den kanpaldia, Iruñean hasiko dena 28an bizikleta martxarekin. Bi saio horiek energia mobilizatzailea ekar dezatela! ●



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Maitatu ala utzi

Telebista pizten duzun aldiro, hor daude: etxeak zaharbertzearekin buruzko programak. Eskema bera errepikatzen da guztietan: bikote bati etxea txiki geratu zaio eta bi aukera dauzka: berritu eta bertan gelditzea edo beste batera aldatzea. Denek dituzte arazo berberak: armairuak behar dituzte han eta hemen dauden trasteak gordetzeko, eta sukaldia eta egongela batera nahi dituzte eta horretarako paretak bota behar dituzte. Trama korapilatzeke beti da ustekaberen bat, teilatuan, eskaileretan edo sotoan, berdin da. Baina inoiz ez dute diru nahikorik etxea nahi-

ko luketen bezala uzteko. Eta, hala ere, gelditu egiten dira gehienetan, trasteak parean ez ikusteak ematen dien lasaitasunarekin. Eta zuri ere paretak botatzeko gogoa sartzen zaizu, eta irla handi bat egiteko sukaldearen erdian, zure lagunekin batera kozinatzeke –nahiz eta inoiz ez zaituen plan horrek erakarri–, eta gauza pila bat erosteko –internet bidez, esan gabe doa– armairu berrietan izanen duzulako tokia guztia sartzeko. Lasai biziko zara iragarkietan hamaika aldiz ikusi duzun alarma jarriko duzulako. Zure bizilagunek jarri dutelako jada. Eta zu ez zara gutxiago. ●

Kontakatilu



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Isiltasunaren legearen kontra egiten dudana batzuetan kontakatilu esaten didate. Adjektibo ezkor bezala erabili ohi da, “konta-katillu dek ori ta gutxi piau”. Salatariak ere zentzu batzuetan ez du ospe onik, “salataria dana ez da gizon zintzoa”. Horrelakoetan arbasoek txutxu-mutxuan jarduten zutenekoa etortzen zait burura, beren bertute eta akatsekin.

Kontrol sozial informalerako erabiltzen zen orduan. Gogoan dut haurtzaro eta gaztaroan amona eta aitona batzuen berrikeren testigu izan nintzela herriko jauntxoaren inguruan. Boteretsuei aurre egiteko abilezia horri esker makina bat datu maneiatzen ziren, baita partekatu ere. Herritar xumeek ugazaben kontuen berri izaten zuten, aberatsen selekzioaren hamaikakoa, a-tik z-ra, izendatzeko gai zirela.

Kastaren bezerokeriaren, ate birakariaren eta ustelkeria estaltzeko ahalegin ezaren ondorioz nabaria zen erregimenari lotutako familia batzuen indarra. 60ko hamarkadan botere ekonomikoa hiru mailatan elkarbanatutako 25 dinastiaren esku zegoen. Goi mailakoak (Aznar, Careaga, Echevarría, Churruca,

Ustelkeria salatzen mugimendu sozialak urriak dira, Adi eta Kontuz elkarteak bakardadean aritu baitira azken urteotan. Hala ere badaude zantzu itxaropentsuak

Guzmán eta Ybarra); bigarren mailakoak (Ampuero, Delclaux, Urquijo, Aresti, Bordegaray, Gandarias, Arteche, Muguruza, Torrontegui, Gondra eta Lipperheide); eta azkenik hirugarren mailakoak (Aguirre, Oriol, Gortazar, González de Echavarri, Zubiria, Artiach, Laiseca eta Chavarri).

Gaur egun zalantzak ditut EAJri lotutako kastaren hamaikakoa izendatzeko dugun gaitasunaz. Are gehiago, Eusko

Jaurlearitzako ugazabak ustelkeriaren kontrol sozial formalaren aurka aritzen dira behin eta berriz: salatzen duten pertsonak babesteko lege proposamena eragotzi, ustelkeriaren diagnosis aurkezteko ekimena galarazi, ustelkeriaren aurkako bulegoa sortzea oztopatu...

Espainiako politikarien ate birakariak infografia ugari irakurrita gaude baina ezer gutxi aztertu eta idatzi da euskal oasiaren ate birakariaren inguruan. Bezerokeriaren mapa islatzeko, jada aspaldikoa den *Bizkaiko Liburu Beltza* horrez gain lan gutxi aurki daiteke egunotan. Epailak eta Fiskaltza kexu dira ustelkeria ikertzeko erabiltzen duten tresna ga-beziaz. Ustelkeria salatzen mugimendu sozialak urriak dira, Adi eta Kontuz elkarteak bakardadean aritu baitira azken urteotan.

Hala ere badaude zantzu itxaropentsuak: Iker Rioja eta beste kazetari batzuen lanak; Hiriko, Karrantza, Minda, edo De Miguel auzien epaiak; ustelkeriaren inguruan inkestek diotena; edota ustelkeriari, ate birakariari eta bezerokeriari aurre egiten gero eta tematiago ari direnak, alderdi politiko, sindikatu eta agente sozialak hain zuzen. ●

Basherrri
sarea
GRUPOKO KONTSUMO TALDE ETIA KOOPERATIBAK

Elika gaitzen irizpideak kontuan hartuta eta amalurra zainduz

655709043 | info@basherrisarea.eus

2. argitaraldia



XAPOKETAN

KARTA-JOKOA



Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako zazpi ekosistema eta 42 animalia ezagutuko ditugu. 5 jolas ezberdin egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.

EDUKIAK:

Iñaki Sanz Azkue biologoa

IKUSPEGI PEDAGOGIKOA:

Lore Erriondo EHuko irakaslea

MARRAZKIAK:

Eñaut Aiertzagüena

15€

Bidalketa gastuak: 4 €

Eskaerak: azoka.argia.eus / 943 37 15 45

 ARGIA



OKUPAZIJA

ARBONAKO OKUPAZIOA

Laborantza lurren desagerpen basatia geldiarazteko neurriak erdiesteko borroka-gunea

Laborantzara bideratu ehunka hektarea galtzen ditu urtero Ipar Euskal Herriak ere. “Lurra behin saldua, betiko galdua” errana egia borobila izanki, egoera kezkarria da. Espekulazioa dugu arrazoen artean, neurrigabeko preziotan salerosten direlako geroz eta lur gehiago. Militantzia eta borroka salmenta batzuk ezeztatzea lortzen dute ELB sindikatuak eta Lurzaindia elkarteak –baina guztiak ezin-. Okupazioaren hautua egin dute, gaitza ezeztatzeke edo behintzat mugatzeko neurri politikoak eta legislatiboak lortzeko. 3,2 milioi eurotan salerostekoak diren hamabost hektarea lur okupatzen dabilta, Arbonan.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN  PATXI BELTZAIZ

Erreportaje hau idazterakoan, hila-bete bat bete du Arbonako lurren okupazioak. Gure bazterrek betetzen dituzten turistek ez bezala, uda ez dute Lapurdi kostaldean akanpatzen pasatzeko urtarorik idealena laborariak, eta ahal bezala, etxaldeko lanetatik libratuz Arbonan dabilta, okupazioa aitzina eramaten, egunez egun, eta azkenean astez aste. Lehen egunetatik laborari ez diren batzuk ere batu zaizkie borrokara. “Ustez egun batzuentzat jinak ginen, ez genuen pentsatzen hilabete baten buruan hor izanen ginela oraindik”, dio Maryse Cachenaute ELBko laborariak. Munduko hainbat txokotan bezala, Ipar Euskal Herrian pairatu behar izaten dugun espekulazioa eta honek ondorioztatu laborantza lurren desagerpena salatzen dabilta bertatik. Ekainaren 23an hasi ziren lur batzuk

okupatzen ELB sindikatua eta Lurzaindia, laborantzatik bizi nahi dutenei lurrrak prezio eskuragarri batean bideratzen dabilen elkarteak.

Arbonako plazatik bi kilometrotara den pentze xabal eder bat okupatzen dabilta. Hiruzpalau baratzezain instalatzen ahal lirateke bertan, hurbil-hurbil dituen Baiona, Miarritze eta Angeluko kontsumitzaileei zuzenean eta bertatik eskaintzeko jakia. Baina ez: hamabost hektarea hauek beretzako bakarrik nahi ditu erosleak, beretzako bakarrik eta bere horretan, belar izpi bakar bat ere hunki gabe, etxeko leihotik parez-pare duen Larrun mendiari trabarik gabe begiratzen segitzeko gisan –harrigarria badirudi ere, hau da eroslearen abokatuak borrokan dabiltzanei helarazi azalpena-.

Hori horrela, hamabost lur hektarea eta hauei loturiko etxea 3,2 milioi eu-

rotan salerostekoak dira. Bere horretan 800.000 eurotan estimaturikoa lau aldiz garestiago pagatzeko eroslea badauka jabeak. Espekulazioa deitzen zaio horri. Saltzailea zein eroslea, biak dira ikaragarri aberats, biak Euskal Herritik kanpo bizi direnak, eta ez bat ez bestea ez dira laborari –eta lurra ondasun gisa kontsideraturik, axolarik gabe, honen bokazio elikagarria galarazteko prest dira biak-. Logika espekulatiiboak eragindako laborantza lurren desagerpen basatiaren sinbolo bilakatu dute Lapurdiko herri honetako kasua. “Biziki aberats dira, nahi dutena egitera usatuak, sosarekin kasik dena erosten ahal baita. Hor behar dute gure aitzinean belaunikatu... eta ez da erraza horientzat. Joan den primaderan, Donibane Lohizunen 30 hektarea saldu zituen hamabi milioi eurotan! Beste mundu bat da, eta bistan da ez dute



maite jende xehea oldartzen zaienean” dio Dominique Amestoy Lurzaindiako eta ELBko laborariak. Konkretuki, salarostea ezeztatzea nahi dute, eta SAFER laborantza lurren kudeaketarako egiturak erosteko lehentasun partzialaren urratsa bideraturik, lurrak laborantzarako gelditzea.

Baina parean, hitz egiteko eta negoziatzeko jarrerarik ez da. Saiakerak behin eta berriz errepikatu arren, ez dute lortzen saltzailearekin ezta eroslearekin zuzenean hitz egitea ere –“ez dut ezer entzuten, hitz egin ene abokatuarekin” erantzunez mozten die deia erosleak-. Dirudun handien kapritxoari gehitu behar zaizkio beraz errespetu eza eta mespretxua: Amalurraren geroaz kezkatu direnekin solastatzeko nahi edota behar eza.

Hori horrela, ekintzak gogortzeko hautua egin zuten ELB eta Lurzaindiak uztailearen 9an: lurra okupatzetik lantzer pasaz. Hortik lau egunetara, indar harremanean gehiago pisatzeko xedez, traktorez bertaratu ziren 120 bat laborari, Ipar Euskal Herriko hainbat herri-tatik abiaturik, eta Miarritzeko errepideak blokeatu zituzten. Saltzailearen bitartekariaren bulegoak ere okupatu zituzten, baita etxea okupatzen hasi ere uztailearen 15ean. Hala eta guztiz ere, elkor eta mutu segitzen dute saltzaileak eta erosleak. SAFERak erosteko lehen-

tasun partzialaren urratsa bideratu zuen uztailearen 16an –pauso juridiko horrek permititzen die lurren eta etxearen salmentak bereiztea, lurrek nekazaritzara bideraturik segitzeko gisan– eta hortik, beste bi hilabete ditu jabeak, edo salmenta ezeztatzeko eta lurretaz bereiztea onartzeko, edo eskaerari bizkar egin eta guztia erostea galdetzeko SAFERari –prezio horretan ezinezkoa den aukera-.

*Arazoari
erantzuteko
neurri politikoak
galdetzen dizkiote
Euskal Elkargoari*

Erosteko lehentasun partzial hau 11,20 hektarearentzat pausatua izan da, eta eremua 100.000 eurotan baloratua da. Saltzailearen orain arteko jokamoldea ikusiz, errefusa irudikagarriagoa baldin bazaigu ere, lur hauek ez dira oraindik galduak eta borrokak segitzen

dueino irabazteko esperantzak bizirik darrai laborarien artean. “Memento latza da, indar joko batean gara eta ezin dugu bakarrik segitu. Bortizkeria baten aitzinean gara, diruz armaturik heldu dira eta gure kontra bortizki ari dira. (...) Egun ederra da gaurkoa, erakusten digu badela Euskal Herrian borrokatzeko nahikeria. Baina ez da aski, behar da segitu beti”, zion Amestoy bertaraturiko 120 bat laborariei. Egun inportante gisa oroitzen du Cachenautek ere: “Traktoreekin irudikatu egun horrek markatu du laborari mundua, motibazio eta laborari kopuru handia bazen egun horretan”.

**ARBONAKOAZ HARATAGO,
ARAZO BERE OROKORTASUNEAN**

“Memento latza da” ELB eta Lurzaindiaren ustez, Arbonakoa ez delako kasu isolatua. Berdin-berdin salatu zitezkeen, iaz Donibane-Lohizunen 6,2 milioi eurotan saldu hamasei hektareak; Urruñan eraikina duten bi hektareak 440.000 eurotan saldu izana; edota Bidarrain hamasei hektarea eta eraikina 600.000 eurotan saldu izana. Arazoaren larritasuna islatzen digun adibidea dugu Arbonakoa eta erakusleho horretatik dabilta espekulazioaren fenomeno eta laborantza lurren desagertzea salatzen. Salatzen baita problemari erantzuteko neurri politikoak galdetzen.



HILABETE BAT OKUPATZEN

Ekainaren 23a:

Arbonako lurren okupazioa hasten dute ELB eta Lurzaindiak.

Ekainaren 25a:

Etxegarai Euskal Hirigune Elkargoko presidentearen eta Pargade laborantzaren ardura duen presidenteordearen bisita eta sostengua. Bitartekari izateko proposamena luzatu die Etxegaraik, onartua izan da. Udazkenean laborantza lurrei buruzko gogoetaldi bat abiatzeko engaiamendua hartu dute.

Uztailaren 2a:

Sempastous diputatua bertaratu da, laborantza lurrei buruzko lege-proposamenaren arduraduna da.

Uztailaren 9a:

Lurrak irauli eta barazkiak landatu dituzte.

Uztailaren 13a:

125 laborari traktorez bertaratu eta Miarritzeko errepideak blokeatu dituzte.

Uztailaren 14a:

Eroslearen abokatarekin bildu dira laborariak.

Uztailaren 15a:

Saltzailearen bitartekariaren bulegoa okupatu dute Miarritzen. Gauean, jabearen etxera sartu eta bertan segitzen dute okupazioa.

Uztailaren 16a:

SAFERak lehentasunezko erosketarako urratsa eman du; lurrak eta etxea bereizi eta lurrak laborantzarako gelditzeko asmoz. Jabeak bi hilabete ditu erantzuteko.

Uztailaren 22a:

Parlamentariekin bilkura, laborantza lurrei buruzko lege-proposamena aipagai.



JENOFA BERHOKOIRIGONIN

Bigarren aldarrikapen bat esku artean hasi zuten okupazioa ekainaren 23an: Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdiko laborantza lurrei buruzko politika bat abiaraztea galdetzen diote Euskal Hirigune Elkargoari. Neurri eta erabaki politikorik gabe, ezinezkoa zaielako lurren desagerpena geldiaraztea. Hain zuzen, Ipar Euskal Herriko bazterrak oraindik berde eta landurik ageri bazaizkigu ere, egoera larria eta kezagarria da: laborantza lurrak desagertuz doaz, izan laborantzarako izatetik eraikigarri izatera pasatzen direlako, izan Arbonan bezala, laborari ez direnek eskuratzen dituztelako, funtzio elikagarria galduz.

Bi egunen buruan okupaziora jin ziren Jean-Rene Etxegarai elkargoko presidentea eta Isabelle Pargade laborantzaren ardura duen presidenteordea. Haien sostengua erakustez gain, udazkenean lanketa abiarazteko engaiamendua hartu zuten.

Horrez gain, Arbonako kasuari dagokionez, bi aldeen arteko bitartekari izateko proposamena luzatu zien Etxegaraik, laborariak onarturikoa –baina, parekoei kolaborazio eza dela eta, bitartekaritza lana betetzeko nekeziak ditu–. Udazkenean laborantza lurrei buruzko jardunaldiak antolatuko dituzte la baieztatu dio ARGIAri Pargadek. Bertan bilduko dira elkargoko laborantza

batzordekoak baita laborantza arloan dabilzan eragile guztiak ere, hautetsi hazpandarrak zehaztutakoari segi, ondoko galderei erantzuteko asmoz: “Kolektiboki zer egin dezakegu laborantza lurren desagerpenaren kontra? Nola moldatu dezakegu legedia? Zein tresna berri sortu ditzakegu?”.

Zenbaki bakarra aski dugu fenomenoaz ohartarazteko: Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan, 2015 eta 2018 urteen artean laborantzarako 2.450 hektarea desagertu ziren –Baiona hiriaren heineko desagerpena–, SAFER egituraren datu ofizialei segi. Hirigintza Agentziaren datuei so eginez gero, urtean batez beste 250 hektarea laborantza lur dira desagertzen Ipar Euskal Herrian. “Errealitate itsusi baten erakusleihoa da Arbonakoa. Gisa horretako lur galtze anitz badira, beti bada dira prezio handitan bideratu saltzeak”, Amestoyren hitzetan.

Iaz 34 aldiz galdetu zion Lurzaindiak SAFERari erosteko lehentasuna baliatzea, eta 23 salmentei buruz onartu zuen. Hori horrela, ELB eta Lurzaindiari esker, sei saltze berrikusi ziren; logika espekulatiboan egin hamaika saltze ezeztatu ziren; batez bestean %71 apaldu ziren salmenta prezioak eta 60 hektareatan aitzina egin zuen laborantzak.

Baina gaur egungo legeak dakar nahi bezain beste ez dezaketela egin

40.000

Ipar Euskal Herrian 40.000 bigarren etxebizitza daude, eta 2026rako 51.000 aurreikusten ditu elkargoak aurkeztu Bizilekuen Tokiko Programak. Bideratu espekulazioaren eraginez, aterpetzeko zailtasun handiak dituzte bertako herritarrek.

600

2015 eta 2018 urteen artean laborantzarako 2.450 hektarea desagertu dira Ipar Euskal Herrian, SAFER egituraren azken datuei segi, batez beste 600 hektarea urtean. Bi arrazoi nagusi dira: laborantzarako izatetik eraikigarri izatera bideratzen dira edo laborari ez den batek eskuratzen ditu. Bi kasuetan, funtsezko funtzio elikagarria galtzen du lurrak.

11

ELB eta Lurzaindiak luzatu eskaerei esker, logika espekulatiboan burutu hamaika salmenta ezeztatu zituen iaz SAFER egiturak. Eta batez beste %71 apalarazi zituzten saleroste prezioak. Espekulazioaren kontra oraindik eraginkorragoak izateko gisan, legediaren moldaketa eskatzen dabilta.



GUILLAUME FAUVEAU

ELB eta Lurzaindiak, eta Arbonako adibidea dugu beste behin ere froga: lurrak salmenta espekulatibotik kentzeko eta laborantzarako atxikitzeko gisan, SAFERak erosteko lehen tasun partziala bideratzen ahal badu ere, saltzaileak du azken hitza –onartzeko ala errefusatzeko eskumena duelako–.

LEGEAREN ALDAKETA

Horregatik, beharrezkotzat daukate legediaren aldaketa ELB eta Lurzaindiak, eta hori helburu jarririk, harremanetan dira parlamentariekin –Frantziako Parlamentuan laborantza lurrei buruzko lege-proposamenaren ardura duen Jean-Bernard Sempastous diputatuarekin ere bildu ziren uztailaren 2an Arbonan–.

Legea moldatzeko beharra ikusten du Pargadek ere: “Irakurketa bera egiten dugu denek, laborantza lurren zaintzeko nahikari bera dugu, baina legediak ez digu ahalbidetzen: saltzaileak ez badu onartzen, ez dugu tresnarik horretara behartzeko. Gizatasun kontua da: laborantzaren inportantzia eta herritarrak bertatik elikatu behar diren kontzientzia

ez duten batzuen parean gara; eta legea ez doanez gure alde, haien interes pribatuak segitu ditzakete, interes kolektiboaren gainetik pasaz”.

*Arazoa areagotu
du COVID-19
testuinguruak:
etxeaz gain, lurrak
ere nahi dituzte*

IPARRALDEA: ABERATSEK GUSTUKO DUTEN LURRALDEA

Bigarren etxebizitza anitz bada Ipar Euskal Herrian: 198.000 etxebizitzetatik 40.000. Biarritzen adibidez, %42 dira bigarren etxebizitzak. Logika espekulatibo bati segi, gehienetan dirudunak dira



hauen jabe, bertakoen aterpetze ezina eraginez. Bizilekuen Tokiko Programaren (BTP) aurreikuspenen arabera, 2026rako 51.000 bigarren etxebizitza izanen dira Ipar Euskal Herrian.

Gustuko dituzte gure bazter berde landuak –laborariak landutakoak!–, gustuko dute itsasoa eta mendia eskura ukaitea... Aspaldiko arazoa da hau, urteak joan arau indartuz doana. Azken urte eta erdi honetan bizi dugun COVID-19 testuinguruak fenomeno areagotu egin du: orain arte etxebizitza eskuratzen bazuten, gaurko egunean inguruko lurra ere nahi dituzte –berriz konfinaturik izanez gero naturan eta lasaitasunean pasatu ahal izateko etxean gelditzeko manua–.

Arazoa da haien lasaitasun espazioa besteentzako lan tresna eta elikadura burujabetzarako bidea dela. Etxalde eta laborari anitz dituen lehen sektorearen alde dabilta ELB eta Lurzaindia eta COVID-19 testuinguruan sendi den bilakaerak oraindik gehiago kezkatzen ditu. “Lurra behin saldua, betiko galdua” lema ezin hobeki ezagutzen dute ELB eta Lurzaindiak. Egia hau iparrorratz

dutela, badu lau hamarkada lurraren funtzio elikagarria bermatzen eta logika espekulatiboa borrokatzen badabiltzala –ELB 1982an sortu zuten, Lurzaindia aitzin izandako GFA Lurra 1980an–. Gehienetan, itzaleko lanaren bidez, eta behar orduan mobilizazioen bidez. Hala nola, ekainaren 23an hasitako Arbonako okupazioaren bidez.

Okupazioaren hautua ez da hutsala eta ez dute usu erabili izan borroka bide hau Ipar Euskal Herriko laborariak. Egoeraren larritasunaren heineko borroka tresnaren hautua egin dute. Hilabete bat hor dabilta, eta horrela doaz egunak, asteko egitaraua proposatuz, laborari eta laborari ez diren arteko topagune bilakaturik Arbonako okupazioa.

Horrela segitzea nahi dute: “Arbonako okupaziora etorri behar du jendeak, itzuli bat eginez sostengua adieraztera. Arbonara jin, hurrupa bat egitera, afaltzera... hori guretzat pozgarri da, kuraia ematen digu borrokan segitzeko. Biziki inportantea da sostengu hori erakustea” Amestoyk ohar-tarazten digunez. Azken finean, borroka hau ez delako bakarrik laborarien afera. ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

ETXEBIZITZA ARAZOA ETA FAXISMOA

Etxe kaleratze estrajudizialetatik harago doan arazoa

Azken hilabeteetan, zeresana eman du etxe kaleratze estrajudizialak egiten dituzten enpresen artetik ospetsuena den eta eskuin muturrarekin lotura duen Desokupak, Bizkaitik birritan kontratatu baitituzte beren zerbitzuak. Testuinguru horretan, faxismoari pauso bakarra aurrera egitea galarazteko irmotasuna agertu du hainbatek, eta egoera etxebizitza arazoaren eta faxismoaren arteko loturaz hausnarketa bultzatzeko baliatu duenik ere egon da. Zein dira etxebizitza arazoaren aurrean faxismoak dituen adierazpideak? Etxe kaleratze estrajudizialak gauzatzen dituzten enpresetara mugatzen da, edo askoz harago doa? Okupazioaren kriminalizazioak zein lotura du horrekin guztiarekin? Gisako itaunei segi diegu, etxebizitza arazoak auzi antifaxistarekin duen loturaren gainean argi printza batzuk jaurtiki guran.

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA



Apirilak 15, ostegun goiza. Astegun buruzuri izanik, errutinazko espe-ro zatekeen egunaren monotonia haustera datoz mugikorrera sartutako mezu pareak: dirudienez, Desokupa enpresako hamar bat jazarroi Abadiñon daude, okupaturako etxe bat husteko asmotan. Asaldurarekin nahasirik azaleratu da harridura puntua ere, eskuin muturrarekin lotura duen enpresaren esku hartzeak ez baitira ohikoak Euskal Herrian. “Hemen ere hasi al dira etxejabeak faxisten zerbitzuak kontratatzen beren jabetzakoak diren etxeak husteko?”, galdegingo dio batek baino gehiagok bere buruari, halakorik normalizatzeko ekarriko lukeenaz arduraturik. Eguerdian datoz hurrengo berriak: azkenik, Alfredo Baeschlin kaleko etxebizitza hustu egin dute, Ertzaintza protestan bertaratutakoei oldartzen zitzaien bitartean. Abadiñoko Gaztetxeko kideek azalduko zutenenez, atea indarrez



bota ostean, Desokupako kideek etxeko bizilagunak “dokumentu bat sinatzera behartu” zituzten, bereizgarri duten jorkaeraz: presio eta mehatxu bidez. Gazteak helarazitakoaren arabera, inolako agindu judizialik gabe gauzatu zuten kaleratzea; ilegalki, alegia.

Behin kaleratzea burututa, Desokupako buru Daniel Estevek hustutako etxebizitza barruan grabatutako bideo bat igoko zuen sare sozialetara, Ertzaintzari helarazitako babesa eskertuz. Ez zen Jaurlaritzaren Poliziarekin zuten elkarlanaz mintzo zen lehen aldia, egun batzuk lehenago “okupazioa oso era berezian bizi den leku batean” esku hartuko zutela iragarri publiko egindako bideo batean bertako Poliziarekin ondo koordinatuta zeudela adierazi baitzuen Estevek. Josu Erkoreka Segurtasun sailburuak, aldiz, gezurtatu egingo zuen Ertzaintzaren eta Desokuparen arteko

loturarik: apirilaren 30eko Eusko Legebiltzarreko kontrolerako osoko-bilkuran adierazi zuenez, batzuek eta besteek ez zuten izan “inongo kontakturik, ez desalojoaren aurretik, ez bitartean, ez ondoren”. Adierazpenok gezurtatu egiten dituzte Desokupak publiko egindako irudiek: bideoetako batean, Desokupako kide baten eta Ertzaintzaren patruila baten arteko elkarrizketa ageri da, zeinetan esku hartzearen gaineko informazioa trukutzen duten. Euskal Herritik kanpo, ezagun da enpresako kideek hainbat polizia agenterekin duten gertuko tratua; Blanca Todók *La Directan* argitaratutako *El negoci dels desallotjaments extrajudicials (Huste estrajudizialen negozioa)* erreportajearen zehazten zuenez, “[Desokupa enpresako] zenbaitek Poliziarekin lotura egiten duten bizi edota lan ibilbideak dituzte”. Bistan denez gurera ere iristen dira adiskidantzok.

ALERTA ANTIFAXISTA

Maiatza hasieran, Abadiñoko gertakariengatik hautsak oraindik harrotuak zirela eta probokazio gogoz, etxe kaleratzeak estrajudizialki eta legezketasunaren mugetan gauzatzen dituen enpresak berriz ere Bizkaian esku hartzekoak zirela jakinarazi zuen sare sozialen bidez. Esleitu zieten lan berria Bilboko etxebizitza bat hustea zela adierazi zuen Estevek, zehaztapen gehiago eman gabe. Egun gutxiren buruan zehaztuko zituen etxe kaleratzearen egun zehatza, eta zein auzotan jardungo zuten: antza, maiatzaren 12ko asteazkenez Bilboko Alde Zaharrean ziren etxe bat hustekoak. Informazio hori ezagutu orduko jo zuen alerta antifaxistak auzoan antolakuntzara dei eginez, helburu argiarekin: Esteve eta konpainiari sarbidea eragozteko, eta horien balizko agerraldiaren aurrean etxetik kanporatua izan zitekeen auzo-

tar orori nola jardun ezagutaraztea, etxe kaleratzea gauzatu zedin ekidin asmoz. Epe motzean hasi zen fruituak ematen auzotarren artean artikulatzen hasitako autodefentsa, albistea ezagutu eta egun gutxitara eskuz esku baitzebilten morroi koadrila batek etxe kaleratua izateko arriskuan egon zitekeenarentzat jarraibideak biltzen zituen protokoloa. Aurrea hartzea, aterik ez irekitzea, norbere defentsan zenbait mezu helarazteko soilik hitz egitea, grabatzea, gertakarien berri ematea eta Poliziari deitzea, horiek ziren gomendioak.

Gertakariok Alde Zaharreko bihotzean

Arrakala espazioa okupatu berri harra-patu zuten AZET Alde Zaharreko Etxebizitza Sindikatua. Apirilaren 17an *Etxebizitza ez da negozioa* lelopean egindako manifestazioaren akaberan Etxebarrietan Anaien plazako pisu batez birjabetu zirela jakinarazi zutenetik bi aste eskas besterik igaro ez zirela, segurtasun neurriak areagotu beharrean aurkitu ziren. Izan ere, Arrakalak bazituen jazarroien jo puntu izateko aukerak. Heine batean, iragarpena bete egin zen: auzokideen agendetan gorriz markatutako egunaren bezperan, maiatzaren 11ko goizaldean, bota zuten Arrakalako atea.

Hustea exekutatu zuena, baina, ez zen izan azken egunetan kezka iturri bilakaturako jazarroi koadrila, baizik eta "Bilboko Udalaren konplizitate osoarekin" aritutako Bilboko Udaltzaingoa. Kolpea jasan eta aurrera egitea beste aukerarik ez zuten izan ordea, kantoian buelta emanda segitzen baitzuen Desokuparen bisita posibleak, bai eta aste horretan bertan gauzatzekoak ziren sindikatuko bi kideren etxe kaleratzeak. Arrakalaren hustea salatzeko tartea galdu barik, faxistak auzotik kanporatzeko auzodefentsan segi zuten auzoko gainerako kolektiboekin batera.

Astearte arratsaldean, "Auzokideen etxebizitzan defentsan. Faxistak ez dira pasako! Gora Alde Zaharra antifa eta antikapia!" lelopean, ehunka lagunek zeharkatuko zuten Alde Zaharra, faxistei auzora sarbidea eragozteko prestu zirela adieraziz; eta asteazkenean, auzokideen egun osoko presentzia bermatzeko, gosari antifaxistarekin ekin zioten egunari, arratsaldean elkarretaratzea dei eginez. Eguerdirako, baina, garaipena zen albiste. Desokupak bideo batez jakinarazitakoaren arabera, beren zerbitzuak kontratatu zituen etxejabeak atzera egin zuen bere asmoetan, eta ez zuten Bilbon esku hartuko. Etxejabea kalean gerta zitezkeen istiluek beldurtu zutela adierazi zuen enpresak. *El Correo* egunkariak, aldiz, jabeek balizko errepresalien beldur zirelako egin zutela atzera zioen. Herritarrek emandako erantzunari esker, lortu zen kanpotik zetozen faxistei Bilbora sarbidea moztea eta etxe kaleratzea ekiditea; han eta hemen, aldarri bera entzun zatekeen: "Ez dira pasako!"

FAXISMOAK BADITU MILAKA AURPEGI

Garaipentzat du AZETek Desokupari bidea moztu izana, horretan ez dute zalantzarik. Alabaina, faxismoari modu zabalagoan aurre egiteko begirada ireki beharraz ohartarazi zuten egun mugitu haietan. Izan ere, Esteve eta haren lagunek buelta erdi eman bazuten ere, beraiek segitzen zuten aste horretan bertan beste bi etxe kaleratzeri aurre egin beharrean; eta horiek gauzatuko zituztenak neonazi piurako koadrila ez izan arren, arazoaren funtsak berbera izaten jarraitzen zuen. Gertatutakoaren bueltan, hala mintzo zen egun haietan Inurri Gorria erabiltzailea Twitter bidez: "Desokupa hiltzear dagoen faxismo zahar baten karikatua besterik ez da

ALERTA

ANTIFAXISTA

Zer egin nazi-morroiak bizi zaren etxean agertzekotan zu ta lagunak indarrez ateratzeko asmoarekin

Aurrea hartu

Ez ireki

Ez hitz egin

Baina...

Grabatu

Zabaldu

Deitu

HITZ EGIN AUZOKIDE, LAGUN eta hurbilekoekin **ORAIN**. Pentsatu nola elkar zaindu eta elkar abisatu, horretarako, kidetasun taldeak sortu.

...atea. **INOIZ EZ** Gogoratu enpresa pribatua dela eta ez daukatela agiri legalik sartzeko, **EZ SINETSI EZER EZ**

haiekin inola ere ez. **AHOHANDI ETA IRUZURTIAK DIRA**, hitz bitxiak hitzegiten dute eta zugar zalantzak sortzen saiatuko dira. Gogoratu esaten duzun guztia zure kontra erabiliko dutela.

...haiei zuzendu behar bazara, izan dadila soilik esateko **"NO PODÉIS PASAR, HE LLAMADO A LA POLICÍA, MI ABOGADA ESTÁ EN CAMINO, NO PODÉIS PASAR...** behin ta berriz. Oldartzen badira, esan berdina, baina hobe ez beraiekin hitzegin.

Eskatu lagun eta auzokideei **KANPOTIK GRABATZEKO**. Sasi-baimena ematen diegun momentuak aprobetxatzen dituzte bortizki sartzeko. Argi geratu dadila haien eta zuen grabazioetan ez diegula baimenik eman.

ERABILI ESKURA DITUZUN TRESNA GUZTIAK ezagun eta lagunek zer gertatzen ari den jakin dezaten eta hurbildu daitezten lehen bailehen. **EZ ZAUDE BAKARRIK**

Bai... **DEITU POLIZIARI**. Ertzaintza ta udaltzaingoiari. Jasota geratu dadila **ETXETIK ATERATZEKO INDARKERIA ERABILTZEN ARI DIRELA INOLAKO AGINDU LEGALIK GABE**. Egon daitezela bi indar polizialak ziurtatzeko Erkorekak (Segurtasun Sailburua) dioen moduan "euska! poliziak ez dabilatzela naziekien elkarlanean.

–esbastikena eta larru-arras moztutako buruena–, zeinak aspaldi egin dion tokia askoz efizienteagoa den faxismo bati: jabetza pribatuaren eta merkantziaren diktadurarenari. Desokupak estetikoki errepresentatzen du faxismoa, baina egiatan arriskutsua dena beronen funtzio soziala da”. Eta funtzio hori betetzen jarraituko zen, aipatu enpresa tarteko egon ala ez. Hargatik, etxebizitza sindikatutik beharrezkoa ikusi zuten herritarrek Desokupari erantzutean erakutsitako indarra etxebizitza arazora birbideratzea. Egitekoan asmatu zuten nonbait, aste bereko ostiralean lortu baitzuten sindikatuko kide Judithen etxe kaleratzea geratzea.

Gatazka “faxismoa vs. antifaxismoa” antagonismoan kokatu ordez, “jabetza pribatua vs. desjabetzea” parametroetan kokatu beharraz mintzatu zen AZET egun haietan. “Erabaki politikoa izan zen diskurtsoa fokuz aldatzea”, diosku kideetako batek. “Argi dago afera antifaxistarekin lotura egin beharra dagoela. Ongi deritzogu ageriko egitea Euskal Herrian antigorputz antifaxistak izaten jarraitzen dugula, erakustea hemen badagoela herri bat faxismoaren aurrean altxatzen dena, baina hasi beharko ginatke barneratzen faxismoak hamaika aurpegi dituela eta etxebizitzaren desjabetzea, pobreen aurkako gerra, faxismoaren aurpegietakoa bat dela”, egin du irakurketa bigarren kide batek. Ildo berean, eta etxebizitza arazoari dagokionean ere faxismoak aurpegi askotarikoak izan ohi dituela bistaratu asmoz, ondoko itaunak airatu zituen Inurri Gorriak: zer ezberdintasun dago Desokuparen eta antzerako lana egiten duten gainontzeko enpresen artean? Zerk ezberdintzen ditu okupazio eta ez ordaintze kasuetan jazarriok bidaltzean datzan higiezin-agentzien *mobbing* praktikatetik? Jende txiroa eta gehienetan arrazializatua etxe kaleratzen duten okupen aurkako auzotarren mobilizazioak ez al ditu bulkada faxista berak bultzatzen? Zein da Desokuparen eta berauen zerbitzuak kontratatzen dituen jabearen arteko ezberdintasuna?

Erantzukizunak eskatzerako orduan ertz ezberdinak inplikatzeko hasiak dira batzuk. Horren adibide, Abadiñoko husegatik Bilboko Okupazio Bulegoak (BOB) Desokupari ez ezik etxetxabeari ere salaketa jarri izana; besteak beste, norbanakoaren eskubidea modu arbitrarioan egikaritzea leporatu diote. Salaketa jartzeko arrazoiak jakinarazi



Desokuparen balizko bisitaren aurrean, Bilboko Alde Zaharrean egindako mobilizazioa.

zizkion Iñaki Carro BOBeko abokatuak *Anbotori*: “Kasu honetan, delitu larri bat egon daitekeela uste dugu. Jabe bati etxea okupatu badiote, baditu bere bideak horri aurre egiteko; salaketa ipini behar du epaitegian, edo polizia-etxean. Bide bi ditu, bide penal edo zigorgilea eta bide zibila; jabe guztiek dute aukera bata edo bestea aukeratzeko, baina ezin ditu pertsona batzuk kontratatu inor botatzeko”.

“Desokupak
estetikoki
errepresentatzen
du faxismoa, baina
egiatan arriskutsua
dena beronen
funtzio soziala da”
AZET Etxebizitza Sindikatua

SINTOMA GAITZETIK BEREIZTEN

“Gaur, atzo bezala, faxismoa ez da kapitalismoaren tresna besterik”, eta zentzu horretan, Desokupa eta antzerako enpresak “sintoma” besterik ez direla ere azpimarratu dute AZETeko kideek. Krisian dagoen kapitalismoaren zantzu argia. Historiak irakatsia baita sistema

kapitalistak bere oinarriak zabukatzeko ikusten dituenean, goi klaseak bere pribilegioak arriskuan daudela kontsideratzen duenean, faxismoaz baliatu ohi dela ordura arteko gauzen ordena irauli ez dadin.

Zentzu horretan, argigarria da etxe kaleratze estrajudizialak egiten dituzten enpresen eztanda testuinguruan jartzea. Blanca Todòk *La Directan* argitaratutako *Licencia per a desokupar (Desokupatzeko lizentzia)* erreportajearen nabartzen zuenez, enpresok aurrera eramaten dituzten praktikak aspalditik gauzatu izan dira “informaltasun gehiagorekin ala gutxiagorekin eta indarkeriazko izaera nabarmenarekin”, baina 2014an Desokupak agerpena egin zuenetik etxe kaleratze estrajudizialen sektore ekonomikoa bistaratu eta normalizatu joan da. European etxebizitza arazoa pairatzen duen populazioaren ehunekoak puztu bitartean joan dira ugaritzen gisako enpresak. Eskubide sozialen DESC Behategiko ikerlari David Hammouren hitzetan, “orokortutako larrialdi habitazionalak eta etxebizitza eskubidearen urraketak ezaugarritzen duten testuinguruan agertu dira enpresa horiek. Jendartearen zatirik zaugarrienak ezin du etxebizitza duinera sarbiderik lortu merkatuaren bidez, eta modu prekarioan egiten du, okupazioaren bidez”. Koiuntura horretatik sortu dira etxe kaleratzeak gauzatu dituzten enpresak, AZETeko kideen hitzetan “edozerren eta edozeinen gaitetik jabetza pribatuaren defentsa egitea” xede dutenak. Merkatuan Desokupa



Hainbat hedabidetako saioren fotogramak, okupazioaren gaia ardatz.

marka erregistratua gailendu bada ere, dezente dira antzerakoak. Urrutira joan gabe, Desokupa Bilbon egitekoa zen balizko agerraldiaren aurrean herritarrak antolatzen ari ziren bitartean, enpresa horietako batek Basurtun etxe kaleratze ilegala gauzatu zuen.

Sindikatuak kideek azpimarratu bezala, baina, etxe kaleratze estrajudizialak egiten dituzten enpresak etxebizitza problematikaren aurrean jabetza pribatuaren defentsari erantzuten dien ertz bat besterik ez dira, askoren artean. Sintomak badu hainbat adierazpide forma, alegia. “Horregatik genioen berdin zaigula etxe kaleratzea gauzatzen duena Desokupa izatea, Arrakalako kasuan bezala Udaltzaingoa izatea, edota Judith gure kidearen etxe kaleratzean bezala Udal Etxebizitzak eta Ertzaintza izatea. Ulertzen dugu denak direla arazo beraren aurpegi ezberdinak, krisian den kapitalismoarenak, eta denek defendatzen dituztela burgesiaren interesak; batzuk legezketasunetik, eta beste batzuk legegaren mugetan”, ebatzi dute. Horiekin batera, zerrenda osatuko lukete, besteak beste, higiezin-entzietiek burutzen duten *mobbingak*, edota jendea etxeetatik kanporatzeko batzen diren auzokide taldeek. Azken urte parean Ezkerraldean behin baino gehiagotan jazo den fenomeno da zerrendatuetan azkena, eta bistaratu egin du hainbat hedabidek betetzen duten funtzioa jendea jabetza pribatuaren defentsara –eta ondorioz, etxebizitza eskubidearen aurka– lerratzerakoan. Gertuko adibideetara joz, ikusi dugu Vocento taldeak nola baliatu

duen Victoria de Castroren kasua, okupazioarekin zerikusirik ez duten eta isolatuak diren bizilekuaren bortxatze kasuak okupazioarekin loturan eta zerbait orokortua bailiran aurkezteko, iritzi publikoaren zati esanguratsua okupazioaren aurka jarritz. Hainbat hedabidearen bide beretik, etxe kaleratze oldearen aurrean, askorentzat aterpea izateko alternatiba bakarra izango dena deslegitimatu dute iritzi publikoaren begietara.

OKUPAZIOAREN KRIMINALIZAZIOA, IKUSPEGI JAKIN BATEN HAZTEGI

“Etxebizitza izango da klase borrokaren fronte nagusienetakoa”. Pairatzen ari garen krisialdia areagotu egingo dela eta nonbait emango bada gordin etxebizitzaren eremuan izango dela deritzote AZETeko kideek. Jakintzat jotzen dute goi klaseak ere jakin badakien zerbait dela, iritzirik “ez dela kasualitatea etxe kaleratze estrajudizialak egiten dituzten enpresek hainbeste publizitate eta etekin izatea”. Egiten ari den okupazioaren kriminalizazioak kasualitatea ez dirudien era berean. Are, eskutik doaz bata eta beste; DESC Behategiko Hammouk azaltzen duenez, zenbait “diskurtso politikok eta mediatikok sustatua” da “okupazioenganako etsaitasuna”, eta “mesedetu egin dituzte pobrezia eta emergentzia habitazionala kriminalizatzen eta merkantilizatzen –eta era berean sustatzen– dituzten enpresak”. *El Salton* argitaratutako *El fantasma de la okupación, agítase antes de usar* (Okupazioaren mamua, astindu erabili

aurretik) erreportajearen Bartzelonako Hipotekek Kaltetutako Plataformako (PAH) kide Lucía Delgadok seinalatzen duenez, okupazioaren aurkako kanpaina politiko eta mediatikoak piztu egiten du “txiroaren eta are txiroagoa denaren arteko gerra”. Hots, ondoeza jendar-teko azpirengo geruzetara birbiderturik, arazoaren erantzuleak eta haien interesak babesten dituzte. Okupazioa “etxebizitza alorrera bideratu ez diren politiken” eta “lege garantistak aplikatu ez izanaren” ondorio dela ulertu eta onartu beharrean, betikoak kriminalizatzen direla dio.

Hedatzen ari den okupazioaren kontrako diskurtsoa desmuntatzera datoz datuak ordea. 2011koa da Espainiako Estatistika Institutuaren (INE) azken biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda (*Censos de Población y Viviendas*), eta bertan jasotzen denez, EAEko 1.017.602 etxebizitzetatik 81.003 hutsik daude (etxebizitza hustzat jotzen dira lehen zein bigarren bizileku ez diren etxeak) eta Nafarroan 308.602 etxebizitzetatik 35.102 daude hutsik. Okupazioagatik jarritako salaketak, aldiz, 2021eko lehen hiruhilekoan 24 izan dira EAEn eta bakarria Nafarroan, eta 2020an 79 eta 17, hurrenez hurren. Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren *Efecto de la Crisis en los órganos judiciales* (Krisiak organo judizialean izandako eragina) txostenetan jazotako datuen arabera, okupazioaren munta hainbatek irudikatzen dutenaren oso bestelakoa da. Muntaz gain, nolakotasunari dagokionean ere

bada ezberdintasunik barra-barra dibilen diskurtsoaren eta errealtatearen artean: Espainiako Estatuan okupazioari buruzko ikerketa burutu zuen Insitut Cerdàko Miguel Hernándezek *El País* egindako adierazpenen arabera, “gehienbat bankuen eta inbertsio funtsen jabetzakoak edo alokairuko parke publikokoak diren etxebizitzak” okupatzen dira. Eta VPS Group enpresaren arabera, finantza erakundeek dira okupatutako etxebizitzaren %80. Hedabide, segurtasun enpresa eta bestek jaurtikitzen dituzten mezuek oporretan egon bitartean bizitokia okupatu diezazuketela ulertzea ematen duten bitartean, etxebizitza hutsen kopuruaren ondoan anekdotikoak dira okupazio kopuruak, eta kasuen gehiengoan etxebizitzak ez dira partikularren eta etxejabe txikien jabetzakoak izaten –eta are gutxiago lehen bizilekuak–. Joaquim Bosch epailearen hitzetan, “instrukzio-epaile gisa daramatzadan hamasei urteetan ez zait egokitu lehen bizileku baten okupazio kasurik. Denak izan dira pisu hutsak, gehienetan bankuenak eta bestelako entitateenak”. Eta lehen bizileku baten okupazioa gertatuko balitz, ez ginateke okupazio kasu batez ariko, baizik eta bizilekuaren bortxatze kasu batez, Alejandra Jacinto abokatuak ñabartzen duenez.

Enekuriko Lagunek beren azalean pairatu dituzte diskurtso hori indartzerantz zetozen jazarpen mediatikoa zein beronen ondorioak, iazko urrian Enekuriko Fatima kaleko 3. zenbakian sartu zirenetik jo puntuan jarri baitzituzten *El Correo*, Tele5 edota Cuatrok. Are, informatzera mugatuz urrutituta, kazetarietako batek gertakizunetan esku hartu zuela jakinarazi dute: “Badakigu *El Correo* kazetari batek auzokide batekin harremana egin zuela –ez dakigu konpentsazio ekonomiko bitartez ala ez– eta horrela sortu zutela show mediatikoa. Auzokide hura arduratu zen auzokide talde bat okupen aurka mobilizatzeaz, auzokideek argi izan gabe zein ziren okupak, etxejabeak kontratatutako jazarroi enpresa ala gu hirurok”. Hedabideetara jotzea bide judiziala hartzeari uko egin zion etxejabearen enegarren estrategia izan baitzen, eta ordurako jarriak baitzituen presioa egiteko hainbat mekanismo martxan, Desokuparen gisako jazarroi koadrila bat kontratatzea kasu. Enekuriko lagunak Monte Negro jatetxea izandakoaren bulegoetan bizi ziren, eta morroiek jatetxean hartu zu-

ten aterpe hainbat egunez, okupatutako eraikinaren ingurumarietan topo egiten zuten oro jazarri eta mehatxatzeaz gain jatetxea barrutik birrinduz, auzoan zalaparta eraginez. “Nahastea sortu zuten, auzokideek ez zekiten zein ziren okupak”, seinalatu dute.

Bide judiziala hausnartu aurretik, justizia bere esku hartzen tematutako etxejabearen azken heldulekuak izan ziren hedabideak. Enekuriko lagunek azaldu dutenez, jasotako aholkularitza juridikoa medio, lehenago ala geroago etxejabearekin gatazka izango zutela barneratua zeukaten, baina behin unea iritsi zenean gertakizunak aurreikusitakoaren oso bestelako bidea hartzen ari zirela ohartu ziren: etxejabeak ez zion deitu Poliziari, ez zuen salaketarik jarri, eta hortaz ez zen jazo prozedura judiziala irekitzen zuen identifikazio-

“[*El Correo* kazetariak] auzokide talde bat okupen aurka mobilizatzeaz arduratu zen auzokidearekin aliantza egin zuen”

Enekuriko Lagunak

rik. Kontrara, “etxejabea zela zioen gizon bat bertaratu zen, ondoan salaketarik ez jartzeko aholkatu zion pertsona bat zuela, esanez bera arduratuko zela biharamunean zarraila aldatzeaz. Beraiekin hizketan aritu ginen, baina gu iraindu eta mehatxatu ostean alde egin zuten”. Jabearen bisita Madrilgo Carabanchel auzoko etxebizitza sindikatuko lagun bat bisitan zegoela jazo zen, eta hark gertatzen ari zitekeenaren susmoa hartu zuen: “Ohartarazi gintuen gerta zitekeena zela etxejabea saiatzea bere bitartekoeekin gatazkari aterabidea ematen”. Hala izan zen, hurrengo egunean hasi baitzen hiru kideek “higiezin *mobbing*” gisa identifikatu duten prozesua, erreferentzia egiten diona “etxetik alde egin genezan, etxejabeak martxan jarritako estrategia multzoari”. *Mobbing* diruaren truk alde egi-

teko proposamarekin abiatu zen, eta ostean etorri ziren jazarroi koadrilaren presio eta jazarpena, hedabideen kriminalizazioa eta ondorioz zenbait auzokidek beren aurka egindako protesta.

Estrategia horiek guztiak baliatu ostean bide judiziala hartu zuen etxejabeak, “behingoagatik”. Alabaina, *mobbing*ak jarraitu egin zuela diote: Erandioko Udalak erroldatzeko trabak jarri zizkiela azpimarratu dute, etxe kaleratzea jasoz gero oinarritzko zerbitzu sozialetara jotzea galaraziz; eta horrez gain, 3.000 euroko kauzioa ere eskatu zitzaie gehitu dute. “Horrek epaiketara joatea eragotzi zigun, etxe kaleratze prozesua azkartuz”. Hainbat jirabiraren ostean, lortu zuten zaurgarritasun ekonomiko egoera aitortzen zien informea eta etxe kaleratze agindua atzeratzea, baina ekainarekin batera beste aldearen presioak berriz agertu ziren: batetik, jatetxea izandako eraikinean obrei ekin zieten, obretako langile baten bidez berriz dirua eskainiz alde egitearen truke; eta bestetik, bide formaletik ere egin zieten presioa, beren zaurgarritasun ekonomiko informeari helegitea jarritz eta etxe kaleratze data aurreratuz. “Obrak *mobbing*aren parte izan dira, jakitun baikara Katalunian adibidez erabili izan duten bidea dela, presioa egin eta kaleratzeak azkartzeko”, zehaztu nahi izan dute.

Hau guztia behin behineko aterpeetatik kontaktu digute Enekuriko kideek, uztailaren 6an etxe kaleratu baitzituzten, hasiera batean aitortutako zaurgarritasun egoera aintzat hartu gabe eta hargatik bizitegi-alternatiba baten faltan. Nekaturik agertu dira, baina gogoz onartu dute beren esperientzia partekatze gonbita, sinetsirik baitaude beren bizipena eta bertatik ateratako irakaspenak beste batzuentzat argigarri izan daitezkeela. Izan ere, Enekuriko kasuak aukera luzatzen du etxebizitza arazoaren bueltan ororen ginetik jabetza pribatua defendatzen duten ertz askotarikoak eta horien arteko loturak begiztatzen hasteko, eta okupazioaren kriminalizazioak makinaria horren erregai funtzioa betetzen duela bistartzeko. Enekuriko kideek garrantzitsua deritzote zentzu horretan informazioa pilatzeari eta ezagutzera ematen joateari, “geroz eta gehiago, desjabetua izan den eta bitartekorik ez duen jendearentzako aterabidea izango delako okupazioa, eta ez hainbeste konbikzio kontua”. ●

“ ”

“Naturaren aurkako ekintza oro giza eskubideen urraketekin dago lotuta”

Mugarik Gabeko kideak

Mugarik Gabek, elkartasunerako eta nazioarteko lankidetzarako erakundeak, argi du transnazionalak hainbat herrialde ustiatzen ari diren bitartean, baliabide naturalen defentsarako protesta sozialen kriminalizazioa eta eskubideen urraketak gero eta larriagoak direla. Nazioarteko lankidetzatik eta elkartasunetik abiatuta, kanpaina berri batean ari dira lanean, Maite Ezquerro Saenz eta Jesús González Pazosek kontatu digutenez.

 IRANTZU PASTOR

Zeintzuk dira Mugarik Gabe erakundeak dituen erronka eta proiektuak hurrengo hilabeteetarako?

Jesús González: Normalean naturaren aurkako erasoak eta gizakien kontrakoak elkarren artean harremanik ez duten gauzak bailiran aurkezten dira; alde batetik klima aldaketa eragiten ari den hondamendia, natura eta animaliei eragiten diena batez ere, eta bertetik giza eskubideen kontrako gehiegikeriak. Ongi diseinatutako diskurtso honek ez duena kontatzen da naturaren kontra egiten diren ekintza guztiek berehalako ondorioak dituztela giza-kiongan eta giza eskubideen urraketak sistematikoak direla horrelako kasuetan; kriminalizazioa, hilketak, kartzelaratzeak edo jende multzo handien desplazamendua, adibidez. Batzuetan badirudi klima aldaketaz hitz egiten de-

nean “zerutik eroritako” zerbait dela eta etorkizunean sufrituko dugula horren guztiaren eragina, baina ez da horrela, oraintxe gertatzen ari da eta hori ikusarazi behar da. Horregatik, “Bizitza jokoan. Lurra, bizitzak eta eskubideak” kanpaina ari gara lanean, ingurumen eskubideen urraketak eta giza eskubideenak hagitz lotuta daudela ulertaraztea helburu.

Zein ekimen aurreikusten dituzue kanpainaren baitan?

Maite Ezquerro: Enpresa transnazional bat herrialde batera sartu eta megaproiektu bat eraikitzen hasten denean, ingurumena hondatu eta kutsatzeaz gain, lehen erran bezala, bertan bizi diren giza eskubideak urratzen dituela ulertarazi behar zaio gizarteari. Hori lantzeko, lau lan ardatz nagusi ditugu.

González: Lehena formakuntza litza-

teke, 2021 eta 2022an Euskal Herriko unibertsitateetan gaiaren inguruko mintegiak antolatuko ditugu. Bigarrena, kongresu nagusi bat antolatzea izanen da, hurrengo urte hasiera aldera. Hirugarrena, Latinoamerikako hainbat herrialdetan emandako kasu konkretuen inguruko ikerketa da eta horri lotuta, argitalpen bat ere bai. Azkenik, politikoki eragiteko kanpaina ere aurreikusten dugu, gai hauen inguruan jarrera eta konpromiso politiko zehatzak har ditzaten lanketa sakona egitea, bai instituzioekin baita Euskal Herriko erakunde sozialekin ere.

Larrialdi klimatikoak gero eta kezagarriagoa dirudi. Gure esku dago gelditzea?

Ezquerro: Bizitza jokoan dagoela ulertzen dugu Mugarik Gaben, krisi klimatikoak bizitza bera mehatxatzen duela,



MUGARIK GABE

Organización No Gubernamental de Cooperación
para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible
www.mugarikgabe.org



gizakion eta inguratzen gaituen guztiaren bizitza. Gaur egun, inork ez du klima-krisia ukatzen, baina gizarteari ulertarazten zaio bere gain dagoela erantzukizun nagusia. Egia da denon esku dagoela neurriak hartzea, baina benetan aldatu behar dena ekoizpen eredia da, enpresa kutsakorrek eta estatuek dute arazo honen giltza nagusia eta beraiek dira krisi honen erantzule zuzenak. Hor jarri behar da fokua eta hori da gure helburuetako bat.

González: Erantzukizun maila ezberdinak daude, gutarik bakoitzak etxetik zerbait egin genezake eta egin behar dugu noski, baina arazoa sistema neoliberal da, estatuek enpresa eta erauzketa-proiektuei ematen dieten babes.

Transnazionalak hainbat herrialdetan egiten dutena ez al da kolonizatze modu eguneratu bat?

González: Kapitalismo basatiaren maila gorena da, bai. Ez da ahanzi behar, egungo eredu neoliberalak bilatzen duen bakarra gehienezko irabazia lortzea dela, edozein modutan gainera, eta hori lortzeko erremintak enpresa transnazionalak dira.

Azken urteetan, enpresa anitzek diskurtso eta irudia moldatu dute "berdeagoak" izateko gizartearen begietara.

González: Euren irudia garbitu nahi dute horrelako aldaketekin, baina negozioa eta dirua ez galtzea da azken helburua. Iraultza berdearen bandera hartzen dute, baina aldi berean kutsatzen eta ustiatzen jarraitzen dute, inoiz baino bortitzago.

Ezquerro: Salaketak egiten ari gara, energia berriztagarria produzitzen duten enpresa batzuk giza eskubideak urratzen ari baitira. Gainera, eredu zentralizatua eta enpresa gutxi batzuen monopolioa dago, kutsatu egiten dute... Beraz, enpresa batek energia berriztagarria produzitzeak ez du ezer bermatzen. Aurpegia garbitu dute eredu berarekin jarraitzeko.

Latinoamerikan enpresa hidroelektriko pila bat dago eta gas isurketa ikaragarria da askotan, metanoa batez ere, ia errektore kimiko batek bezainbertze gas isuri dezakete.

González: Latinoamerikan erauzketa-proiektu bortitzak dituzte martxan: zeru zabaleko meategiak, soja edo

palma landaketa erraldoiak... Natura eta basoak suntsitzen ari dira, baina "proiektu berde" gisa saltzen dituzten hidroelektriko eta parke eoliko erakuntza masiboak ere hagitz deigarriak dira. Herri indigenak beraien lurretatik botatzen dituzte proiektu hauek erakitzeke, eta Latinoamerikan ez dira bat edo bi, ehunka hidroelektriko eraikitzen dituzte lur eremu hagitz txikian, baita parke eoliko erraldoiak ere. Bitartean, hemen erakusten digute energia berriztagarria sortzeko proiektu eder eta jasangarriak direla.

Norentzat da sortutako energia hori?

González: Enpresa hauetan sortutako energia ez da inoiz bertako biztanleentzat, produktutako ia energia guztia meategientzat eta nekazaritza edo industriako proiektu erraldoientzat dira; energia eta ur pila bat behar izaten dute. Guatemalan esaterako, produzitzen den energia guztia esportatzeko da, eta ondoan bertako herritarrak daude etxean argirik eta urrik ez dutela, pobrezian bizirautean.

“ ”

Herri indigenak beraien lurretatik botatzen dituzte ehunka hidroelektriko eta parke eoliko erraldoi eraikitzeke. Baina hemen erakusten digute proiektu eder eta jasangarriak direla

Jesús González

Gure inguruko enpresak ere egonen dira atzean, ezta?

González: Iberdrola adibidez Mexikoko parke eoliko handien atzean dago, baita Brasileko enpresa hidroelektriko anitzera erakuntzan ere. ACS enpresa espainiarrak Guatemalan hidroelektriko asko eraiki ditu, eta Europako enpresa mordoa dago antzera jokatzeko. Eskubide urraketa kasuak ematen direnean eta enpresa hauei erantzukizu-

nak eskatzen zaizkienean, erraten dute herrialde horietako bertze enpresak subkontratutako enpresak direla, beraiek ez dutela zerikusirik gauza horiekin. Euren izena garbi mantentzen saiatzen dira eta enpresa eredu garri bezala saltzen dute beraien burua nazioartean. Gainera Espainiako Gobernuak babes ematen die, hainbat programa eta dirulaguntzaren bidez.

Ekintzaile, lider sozial eta indigenen kontrako mehatxu eta are gehiago hilketak ezagunak zaizkigu, esaterako Honduraren hil zuten Berta Cáceresen kasua.

González: Kriminalizazio prozesuak hasten dira herritarrak megaproiektuei aurre egiteko antolatzen direnean. Lider komunitarioen atxiloketa prebentiboak adibidez hagitz ohikoak dira, horrela enpresa hauek herritarrak geldiarazten dituzte eta denbora irabazten dute erakuntza obrekin aurrera egiteko. Guatemalan, Honduraren, Kolonbian, Mexikon... ingurumenaren, lurren eta giza eskubideen defendatzaileen kontrako eraso eta eraiketa kasuak hagitz kezkarriak dira. Berta Cáceresen kasua nazioartean ezagun bihurtu zen, bai, baina beste hilketa guztiek ez dakigu deus ere. **Ezquerro:** Komunitate indigenak, nekazariak eta afroondorengoak dira kriminalizazio eta jazarpen gehien jasaten dutenak. Beraieganetik anitz ikasteko dugula uste dugu, Mendebaldeko gizarteetan ama lurrarekin konexioa galdu dugula baitirudi, ez gaude lurrari beraiek bezain lotuta eta ahaztu dugu denok ekosistema beraren zati garela. Euren argi dute naturaren kontrako edozein eraso gizakiaren kontrako eraso zuzena dela eta horregatik dela hain beharrezkoa ama lurraren defentsa egitea.

Krisi klimatikoak berdin eragiten digu guztioi?

Ezquerro: Ez, noski ez digula berdin eragiten pertsona eta gizarte-klase guztiei. Emakumeei bereziki eragiten dio klima-krisiak, batez ere etxeko lanez arduratzen direnak direlako; ura, argia, janaria, sua... bizirauteko beharrezkoak diren lan horiek guztiak emakumeek egiten dituzte herrialde gehienetan, eta horien falta dagoenean, emakumeak lan gehiago egin behar izaten du ura edo janaria lortzeko. Pobrezia tasek, energia-pobrezia adibidez, gehiago eragiten die emakumei.



Krisi klimatikoaren ondorioz, milioika desplazatu daude urtero munduan. 2020an, 30,7 milioiek beraien etxea utzi behar izan zuten (Internal Displacement Monitoring Centre).

González: Uraren kontrolagatik ari dira ematen gatazka eta gerrak gaur egun eta horrek milaka eta milaka herritarren desplazamendua eragiten du. Idorteak, suteak, uholdeak... Gero eta gehiago ikusten ari garen fenomenoak dira; azken hilabeteotan Kanadan ikusi ditugun tenperatura altuak eta suteak aurretik ikusi gabeko gertakariak dira. Sistema honek behin eta berriz errepikatzen digu gauza anekdotikoak direla, guri ez digula guztiz eragiten, gure etxeetan ez dela ezer gertatuko, baina hori gezurra da. Horrelako hondamendiak milaka eta milaka herritarren desplazamendua eragiten ari dira momentu honetan berean Afrikan, Asian... eta hori, hein handi batean, hartzen ari diren erabaki politikoaren ondorioa da. Kontua da, herrialde horietan pasatzen

dena ez dela telebistan agertzen, Kanadarekin bezala.

“ ”

Egia da denon esku dagoela neurriak hartzea, baina benetan aldatu behar dena ekoizpen eredua da, enpresa kutsakorrek eta estatuek dute arazo honen giltza nagusia

Maite Ezquerro

Nola ikusarazten da hau guztia eta nola lantzen da elkertasuna Euskal Herritik?

Ezquerro: Alternatibak bilatu behar dira, indibidualki eta kolektiboki. Antolatzea, mobilizatzea eta gertatzen dena ikusaraztea ezinbertzekoa da. Borroka elkarrekin lotu behar ditugu eta sektoreen arteko elkarlana bultzatu, maila globalean. Alternatibak, gainera, anitza izan behar du, leku bakoitzera egokitua, bertzela ez du funtzionatzen, ez dagoelako egiteko modu hegemoniko eta bakarra.

Horregatik zuen kanpaina...

González: Kanpaina honek ez du erreforma txikiak egitea bilatzen, sistema guztia errotik aldatzea baizik. Gure sistemak ez du balio, ikusi dugu ez duela funtzionatzen, beraz, transformazioak erradikala izan behar du, sistemaren errora joan eta dena aldatu. Kanpaina gure ekarpena da presio sozial hori handitzeko eta nolabait aldaketa eragiteko ekonomikoki, sozialki eta politikoki. Egungo sistemak natura gero eta bortitzago hondatzen du eta herri eta gizakion eskubideak urratzen ditu. ●

BOTERE JURIDIKOEN OLDARRALDIAK

Ezer aldatu gabe, legeak ez du lehen bezalako baliorik

Gauzak ez dira besterik gabe gertatzen. Hizkuntza minorizatuen aldeko aktibistek argi diote: auzitegien interpretazioak aldatu eta hizkuntza gutxituak are gutxituago geratu dira. Ez dago oinarritzko babesa eta ziurtasuna emango duen legerik.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  MARISOL RAMIREZ / FOKU

Udaltzainak bikoteka badabiltza, zertarako ezagutu beharko ote dute biek bertako hizkuntza? Izan ere, euskaraz komunikatu nahi badu herritar batek, horretarako dago euskaradun agentea. Eta gazteleraz komunikatu nahi izanez gero, posible da bitako edozeinekin hitz egitea. Honek beste ertz batera ere badarama kontua: zein hizkuntzatan hitz egingo duten udaltzain horiek beraien artean. Horixe da Iruenen gertatu zena pasa den udaberrian: EAEko auzitegiak esan zuten “diskriminazioa” zela udaltzain guztiek euskara jakin behar izatea. Lasarte-Orian, berriz, ezin diseina daiteke udaletik, uda sa-soiko haurrentzako aisialdia euskara hutsezkoa izatea. Euskararen sustapena baino, gaztelerarekiko “bazterkeria” zela ebatzi zuten iaz.

Orain, uztailearen erdialdean jakin da, udaletako dokumentu guztiak gutxienez gazteleraz idatzi behar direla. EAEko Udalen Legea garatzeko Eusko Jaurlaritzak 2019an onartu zuen dekretua auzitan jarri zuen Vox alderdiaren helegite batek. Artikulu batek zehazten du toki erakundeetako zenbait agiri euskaraz idatz daitezkeela, baldin eta, erakunde

barruan, “euskara ezagutzen ez duen kideren bat egon eta bere eskubideak urratzen ez badira”. Salbuespena adierazten duen artikulu horrek ez du baliorik, antza. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren arabera, “gaztelaniaren erabilera mugatu eta libreki erabiltzeko eskubidea urratu” dezake dekretuak.

Ez da kasu isolatua. Auzitegiaren batek EAEko hainbat udal ordenantzatan esku hartzea, ez da euskararekin soilik gertatzen den afera; ez dute hala sinesten behintzat Valentziako Hizkuntza Eskubideen Katedran. Horko kide da Paul Bilbao, Euskalgintzaren Kontseiluko lehendakaria: “Ez da gauza bera EAEn, Nafarroan, Valentzian edo Katalunian ezarrita dagoen hizkuntz-politika, baina uste dugu marko juridikoa bera dela”.

ERREPIKATZEN DEN JOERA

Irungo eta Lasarte-Oriako kasuak gogor salatu ziren hainbat forma eta agertokitan. Egoeraren larritasuna azaltzeko, batez ere. Baina bai Kontseiluan eta bai aipaturiko katedran uste dute zerbait gehiago dagoela horren atzean. Nola-baiteko joera bat, ezkutuko estrategia baten emaitza. Izan ere, Bilbaoren us-

tez, “harrigarria” eta aldi berean “joera horren erakusle” da Irungo Udalarekin gertatu zena: urteak dira EAEn euskararen jakintza eskakizuna egiten dela administrazio publikoan lan egiteko. Eta legedia ez da aldatu.

Halako erabakien atzean, botere juridikoak azken hitza nork duen “gogorazteko beharra edota nahia” duela adierazi du Bilbaok, auzitan jartzen baitu udalaren eskumena. “Auzitegiak esan beharko luke ea harturiko erabakia legearen arabera den ala ez. Orain arte legezkoa izan da, baina 2021 urtean kasu zehatz bat gertatu da eta, hortik, teoria bat eraiki dute”, azaldu du. Auzitegia hizkuntz eskubideak epaitzera “sukalderaino” sartu dela dio.

Sarritan errepikatu eta aldarrikatu ohi da euskarak lege-babesa indartzea beharrezko duela, eta Bilbaok hala izan behar duela uste du, baina bada nola-baiteko aterkia, berez, goragotik datorrena. Duela jada hogeitun urte sinatu zuen Europar Batasuneko Kontseiluak hizkuntza minorizatuei buruzko Eurogutuna eta, helburua, une hartan, hizkuntza hegemonikoek hizkuntza gutxituak ez zapaltzea zen. Orduetik, estatu bakoitza-

ren betebeharra da bere mugatan bizi diren hizkuntzak bultzatzeko ekimenak legez babestea. Tartean, bada espresuki aipaturiko Lasarte-Oriako zein Irungo kasuak saihestu behar lituzkeen puntua, zeinak dioen, “hizkuntza gutxitu baten aldeko neurriak ezin daitezkeela hartu hizkuntza hegemonikoarekiko diskriminazio gisa”.

Legedia onartu zenetik, hiru edo lau urtero balorazio-ziklo bana egin da –ortara sei–, eta Espainiar Estatuari dagoen txosten guztietan, zera azpimarratu edota eskatu da: “Kartaren 9. artikuluan jasotako konpromisoak aplikatzen direla ziurtatzeko, behar diren neurri juridiko eta praktikoak hartzea, eta, bereziki, Gutunaren 9. artikulua aplikazioak eragiten dien autonomia erkidegoetan, eremu horretan lan egiten duten langileen ehuneko egoki batek dagozkion hizkuntzen ezagutza praktikoa izatea”. Zehaztapenak, zuzenki, Espainiako Konstituzioaren 148. artikuluko 1.17.ari egiten dio erreferentzia, bertan adierazten delako autonomia erkidego bakoitzari dagokiola “bertako kultura, eta baldin balego, hizkuntza ere bultzatzea”. Espainiak ez ditu inoiz ere bete gutunak adierazitako eskakizunak; gogorarazi bai, baina Europak ez du esku-hartzerik egiten.

KATALUNIako ESTATUTUA, HASTAPEN

“Auzitegien joera hau salatzea ez da Euskalgintzaren Kontseiluak bakarrik egiten duen irakurketa”, dio Bilbaok. Espainiako Estatuko beste hizkuntza gutxituek ere pairatzen dute halako jazarpena; hala kontatu du Anna Maria Pla hizkuntzalari kataluniarrak eta Valentziako Hizkuntza

*Hainbat eragilek dio
botere juridikoen joera
Katalunian hasi zela
autonomia estatutuaren
sententziarekin*

Eskubideen Katedrako kideak. Biek ala biek nahiko sentsazio argia dute trantze gutzia Katalunian hasi zela, autonomia estatutuaren sententziarekin. Generalitateak prestatutako testuak argi asko zioen katalana lehenetsiko zela gaztelaren

gainetik eta hori ez zitzaion askorik gustatu Espainiako Auzitegi Gorenari. Konstituzioaren aurkakotzat jo zuten, oinarri-oinarritzko puntua, 3. artikulua, urratzen zuelako; izan ere, gaztelera da Espainiako hizkuntza ofiziala, denek ezagutu behar dutena. Gainontzeko hizkuntzak “abertasuna” dira.

Joera orduan indartu zela dio Plak. Eta behin bidea irekitzen hasita, inertzia jarraitzea askoz ere errazagoa da. Orduz geroztik, hizkuntza gutxituen aldeko neurri proaktiboak hartzen ahalegindu direnean, sarri, auzitegiek muga jarri diete. Eta ez ziren, soilik, zenbait gertakari esporadiko: Kataluniako hezkuntza sistema eta murgiltze eredia zalantzan jarri zuten. Katalana lehenetsiko zela ulertzera eman zezakeen ideia orori hegoak moztu zizkioten, eta hezkuntza sisteman jarri zen, oro har, fokua. Ciudadans alderdiak diskurtso politikoa zentroa bertan jarri zuen, gaztelera “erabat baztertuta” zegoela argudiatuz. Plaren ustez, alderdi katalan nazionalisten partetik, borondate politikorik ez dagoela adierazi du, eta ez du uste ezta ere, Espainiako Estatuan, agenda publikoan dagoen gaia izan gabe, alderdi nazionalistek epe motzeko jardunean oposizioa indartuko dutenik. ●



Maiatzaren 22an Kontseiluak eta beste hainbat eragilek elkarretaratzea egin zuten EAEko Auzitegi Nagusiaren aurrean.

Irtenbide kolektiboak jendeak bakarka dituen eguneroko arazoei

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Manu Robles-Arangiz Fundazioak sustatu duen Alda proiektuaren funtsa hauxe da: usaiazko eragile sozialak eta elkarteak ez direla klase herrikoia-rengana iristen ikusita, AEBetako *Community organizing* antolaketa metodoa ezartzea du asmo, jendar-te herrikoia-aren eguneroko bizitzako arazo zehatzak konpontzetik hasita, auzoetan herritar sareak sortzeko, eta epe ertain-luzera herritar horiek trantsizio ekologikoaren eta justizia sozialaren lanketan inplikatzeko. Alda elkarteak dagoneko baditu hiruhilero atez ate banatzen duen kazeta, 1.000 jenderengana iritsi nahi duen inkesta, maiatzaren 29an inauguratu berri duen lokala... eta beren arazo zehatzei irtenbidea bilatzeko Alda-rengana jo duten gero eta kasu gehiago.

Manu Robles-Arangiz Fundazioko Ipar Euskal Herriko hainbat langilek, orain Alda elkarteari eskaintzen dizkiete hainbat lanordu. Azaldu digutenez, duela bi urte hasi zituzten lehen gogoetak: "Ohar-tu ginen gure usaiaiko elkarte eta militante mugimenduetan jendarte herrikoia ez genuela ontsa hunkitzen. Jendarte herrikoia-ekin esan nahi dugu ahal guttirekin, irabazi guttirekin bizi den jendea".

"COMMUNITY ORGANIZING" METODOA

Beste esperientzia batzuetatik ikasteari ekin zioten eta AEBetan egiten den *Community organizing* deitzen den lan eta antolaketa metodoa dute eredu: "Auzo herrikoietan erabiltzen den antolaketa metodo bat da eta labor esanda, auzoetako sindikatu lana da. Auzoetan jendea antolatzea, sindikatuek dituzten metodoak erabiliz, baina lan mundutik kanpo diren gaien lantzeko: etxebizitza, garraioa, aisialdia... jendarte horiek antolatzen zituzten egiturak desagertu dira, eta orain jende horiek gehienetan bakartuak dira, ez dute jenderik edo mugimendurik edo sarerik haien inguruan, arazoak dituztelarik haien laguntzeko. Bakardade handia bizi dute".

Alda sortu dutenak lehenik dira mili-



tante, batez ere trantsizio ekologikoa eta justizia soziala lantzen dute, "baina ohar-tzen gara ez garela joan behar lan egitera jende horiengana jadanik prest den gure diskurtsoarekin. Jendeen beharretatik abiatu behar dugu, erakutsi behar diegu elkarrekin antolatuz gauzak aldatzen ahal direla. Emeki-emeki, egingo ditugun gauzei esker eta egiteko manerari esker, beste gaiak gero etorriko dira".

KALE INKESTA

2020an hasi ziren buru-belarri Alda proiektua pentsatzen eta 2020ko urrian sortu dute elkarte. "Abiatu genuen lehen lana auzoetan inkesta bat egitea izan da, jendeengana joanez, auzoak eta auzoetako jendea hobeki ezagutzeko". 10-15 minutu eskatzen duen galdetegiaren bidez ezagutzen dute zein diren herritarren arazoak, laguntza behar dutelarik norengana jotzen duten, auzoa nola ikusten duten... karrikan eta merkatuetan egiten dute topo jendeekin, eta iraila bitartean 1.000 jenderen informazioa jaso nahi dute.

Inkesta eta oro har lanketa Baionan zentratu dute, hasteko: "Beranduago Ipar Euskal Herrian zabalduko dugu, baina lehenik elkarteak sortu behar du, mugimenduak ere bai, eta handitu".

ALDA KAZETA ETA AUZOEN ANALISIA

Baionako auzoen kazeta bat ere sortu dute, hiru hilero ateratzen dutena:

"Lehen zenbakia urtarri-lean atera genuen, bigarrena apiril hondarrean. 20.000 aletan inprimatzen dugu eta banaketa bolondresen bidez egiten dugu".

Estatistika iturrietan oinarrituta, auzoen analisi teorikoa ere egiten dute. Baina apirila hondarretik, Aldaren eguneroko martxa aldatu da, jendea hasi delako haiekin harremanetan jartzen, laguntza eske eta eguneroko lan bihurtu da jende horien arazoak konpontzea: "Jendea hasi da ohar-tzen Alda existitzen dela eta bere helburua dela jendearen eguneroko bizian gauzak hobetzea. Gehienetan etxebizitzari lotuak diren arazoengatik jartzen dira gurekin harremanetan". ●

deia hasi da ohar-tzen Alda existitzen dela eta bere helburua dela jendearen eguneroko bizian gauzak hobetzea. Gehienetan etxebizitzari lotuak diren arazoengatik jartzen dira gurekin harremanetan". ●



mrfundazioa.eus

Zer egiten du: Langile mugimenduaren balioak garatu eta sustatzeko trebakuntza eta argitalpenak. Memoria zabaldu, zaindu eta gorde, ELAren artxibo historikoan. Ipar Euskal Herrian, hainbat mugimenduentzat egoitza interasoziatiboa dugu, *Enbata* aldizkaria daramagu eta alternatiben eraikuntza sustatzen dugu (EHLG, Eusko, I-Ener, Enargia...) baita auzo txiroen ere (Alda!).

Langileak: 9. Horietatik 5 Hegoaldean eta 4 Iparraldean.

Egoitza: Bilbon eta Baionan.

Harremanetarako:
fundazioa@ela.eus / 944 037 799

BAZKIDE BERRIAK

Uztailaren 16an Zumaiaiko gaztetxean egin zuten ARGIAko bazkideek batzarra. Lehen aldiz hartu zuten bertan parte bost bazkide berriek.



Gazteak badatoz bultzaka

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Bazkide batzarra egin berri da Argian. Langileena baita enpresa, gogoratu. Bost bazkide berri aurkeztu dituzte bertan. Eneritz Arzallus, Amaia Lekunberri, Jenofa Berhokoirigoin, Maitane Gartziandia eta Zigor Olabarria. Taldera batu diren azken lagunekin hitz egin dugu ikasturteko azken zenbaki honetan, zergatik egin diren bazkide, nola sentitu diren beraien lehen bazkide batzarrean...

Kazetari zein diseinatzaile izan, orain arte jaso duten Argiaren ikuspegia aldatuko zaie bost bazkide berri hauei hemendik aurrera. "Proiektuaren ikuspegi integralagoa" izango dutela diote. Bazkide egin arteko harremana gehiago izan da soldatapeko lan baten antzekoagoa, baina lehen batzar horrek dagoeneko murgildu ditu enpresa baten hesteetan. "Zuzendaritzatik urtean behin langile guztiei balantze ekonomiko azaltzen zaien arren, hau beste gauza bat da; dirukontuez hitz egiten da, erabakiak hartu behar dira, langileon esku (hemendik aurrera gu barne) dago enpresaren norabidea markatuko duten erabakiak hartzea", dio batek. "Kazetaritza proiektu baten atzean dagoen lan guztia ezagutzeko aukera dugu orain, eta Argia proiektuaren

etorkizuna markatuko duten erabakietan hitza eta bozka", segi du beste batek.

Epe luzerako ikusten dute beren burua Argian. Ezagutu dute zein den etxe honetan lan egiteko modua, zein diren zuhaitza sustraitzen duten baloreak, zein den norabidea eta zeintzuk helburuak. Eta proiektuan sinetsita egin dira bazkide. "Soldata igoera bat izango dugu, lantaldeetan parte hartzeko ardua batzuk eta abar, baina niretzat garrantzitsuagoa da sentitzea talde baten parte zarela, talde horrek proiektu bat atera behar duela aurrera eta modurik egokiena da partaide guztiok baldintza berdinetan jokatzeko partida", azpimarratu du hirugarren batek.

Prozesu natural baten fruitu dira inkorporazio berri hauek. Argian inor ez da bazkide egiten lehen unean. Ez da proba gogorrik edo baldintza berezirik bete behar ere. Lanean hasi, taldea ezagutu, lan egiteko moduak ikusi, eta ekipoan denok eroso eta gustura egonez gero, denbora kontua izan ohi da.

Gazteak badatoz atzetik bultzaka. Proiektuak jarraipena izateko beharrezkoa. Zaharrak gustura egoteko moduan dira. ●

HAU DA OPOR AURREKO AZKEN ASTEKARIA

ARGIA Jende estimatua, urtero bezala abuztuan ez duzu etxean astekaririk jasoko, langileok indarrak hartzen arituko baikara. Hurrengo astekariak irailaren 5eko data eramango du eta irailaren lehen egunetan jasoko duzu.

Hala ere, abuztuan ez duzu ARGIAKO irakurgairik faltako: izan ere, hurrengo astean jasoko duzu *Gakoak* urtean behingo aldizkari mardula. Aurtengoak gai bakarra du ardatz: burujabetzak, alorrez alor landuta.

argia.eus webguneak abuztuan ere eguneko berriak ematen jarraituko du, astelehenetik ostiralera. Eta webguneko Azokan erosten dituzuen produktuak ere normaltasunez bidaliko dira abuztuan zehar.

AGENDA

IRAULTZA TXIKIEN AKANPADA:

Abuztuaren 28an, larunbata, Artea herrian goizeko 10:00etan hasita *Komunikabide alternatiboak Euskal Herrian* mahai-ingurua egingo da eta bertan hartuko du parte ARGIAK.

INTXAUR LIKOREA JUPITERRI BEGIRA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Jupiter bere edertasun gorenean ibiliko zaigu abuztuko gauetan. Oposizioan izango da; hau da, bere itxurazko posizioa dela eta gau guztian ikusi ahaliko da eta Lurretik hurbilen dagoen sasoi da. Hartu prismatikoak eta ezagutu bere sateliteak. Gozatu!

Jupiter jainkoak bazuen ezkurra. Izan ere hitz bera erabiltzen da latinez ezkurra eta zakil- edo klitoris-mokoa esateko. Etimologiazaleen artean badago mokokada politik. Gehienek diote intxaurrondoaren (Juglans regia) Juglans izena, latineko Jovis glans hitzetatik datorrela, hau da, Jupiter bezalako jainko batentzako moduko ezkurra edo alea. Iaz duela bi mila urte hildako Marcus Verrius Flaccus hiztegitik eta poeta erromatarrak zioen jainkoak bakean uzteko. Intxaurrondoaren fruituari zokolina kendu eta geratzen den intxaurrak lepo edo ertz mehe batek elkarturiko bi erditan banatua du azala. Horrexegatik erraz hausten da. Gure Marcusek “iugulandam”, ezarria moztu behar zaiona, esaten zion. Agi danean, burua eta soina ia bereizita dauden lepoa gogora zekarkion intxaurraren ertzatxo horrek. Eta Juglans izenak



“iugum glans” duela jatorri zion, hau da, lepoko ezkurra edo ezkur jugularra.

Hizkuntzalarien zipoak utzi eta goazen gozatzerara. Berde daude oraintxe intxaur aleak, sokotena guri-guri. Koskan horri heltzen badiozu natoa egingo dizu, hortik nato ere esaten zaio. Arbolaren alde berde guztiek bezala natoak juglona du, eta tinteak, margoak, kosmetikoak eta jakiak egiteko erabiltzen da. Nato zikinak sortzen dituen juglona horrek edariak ere ederki belzten ditu. Iluntzeaz gain mikatz puntu dotorea eransten die. Goza dezagun horiek.

Ardo suspergarri ederra egiten da 50

gramo hosto edo zokolin berde litro bat ardotan jarrita. Zortzigarren egunerako zuruterako pronto egongo da.

Uxualari intxaur berde ale batzuk eta belarrak nahastuta toki askotan egiten dira edari biziak. Horietakoa da katalanen ratafia ezaguna.

Italian intxaur ale berdeekin soilik egiten da “nocino” esaten dioten edari bizi-bizia. Hartu 7-9 ale eta laurdenduta jarri litro bat alkoholetan, erantsi zuritutako limoi bat, kanela makila bat eta nahi di-

ren usain-landareak. Jarri beirazko ontzi handi samar batean eta itxi tankan hermetikoki. Jarri ontzia eguzkitan eta astindu tarteka. 5-7 asterako egin egongo da. Iragazi, eta urardotu azukre-ura gehituz nahi dugun alkohol graduraino.

Garai batean udako solstizio gauean biltzen omen zituzten sorginek intxaurrak arboletara hanka hutsik igota. Sorginak ziren, noski, denen gustuko horrelako edariak egiteko jakintza zutenak. Sentitu zaitez zeu ere sorgin, egin ezazu intxaur-likorea eta, Jupiter planetaren abuztuko agerraldi dotorean zintzurra bustiz, xurrut, gozatu. ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Arratsaldeon Jakoba, Bizkaitik idazten dizut, larunbatean irratian entzun nizan intxaurrondoaren euli izurriteari aurka egiteko intsektizida nola egin.

Bacillus thuringiensis, Neem olioia eta Xaboi Potasikoa, baina ze kantitate bakoitzeko eta zenbat ur litrotan? Eskerrik asko (📧 Iratxe Zuazo) Bacillusak eta Neem olioak berak

ekarriko dizu etiketan zenbat nahasi. Xaboiari buruz kalkulatu 100 gr 10 litro ureko. Ahalik eta azkarren hasi tratatzen eta 8-10 eguneko tartearekin irailera arte eman. ●

EZ TXAKOLINA, EZ IRULEGIKO ARNOA, HAU BAZTANGO XURIE DA!



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Ana Iriarte Bañez eta Iñaki Bengoetxea daude “Baztango Xurie”, mendiko mahastigintza ekologiko proiektuaren atzean. Nekazaritzako ingeniariak dira biak, eta horretan ari ziren lanean 2013ko krisian langabezian gelditu ziren arte. Iruñetik Arizkuna bueltatzea erabaki zuten orduan, nekazaritzako proiekturen batean sartzeko asmoz. “Bizitzan zirt edo zart egin beharreko momentu horietako bat izan zen”, gogoratzen du Iriartek. Hasieran ez zuten lurrik, baina partzelak alokairuan uztea lortu eta urteotan hiru txandatan landatu dituzte mahastiak; horietako baterako Udalbiltzaren laguntza bat jaso zuten. Egun, Arizkungo lau partzelatan banatuta dauden hiru hektarea lantzen dituzte.

NORK ZIOEN BAZTANEN EZIN DELA ARDORIK EKOITZI?

Behin baino gehiagotan entzun behar izan zuten proiektua abiatu baino lehen ezinezkoa izanen zela Baztan inguruan ardoa ekoiztea. “Gure erreferentzia beti Baigorri eta Irulegi izan dira, asko jo dugu hara hurbiltasunagatik, baina denek esaten ziguten: ‘klima diferentea da!’”, dio Bengoetxeak. Toki bateko eta besteko datu klimatikoak aztertu zituzten, eta Izpegiko beste aldeko eta Gipuzkoako eta Bizkaiko txakolin ekologiko ekoizleen laguntza eta babesarekin aurrera egitea erabaki zuten.

Mahastiak landatu eta gero, hiruzpalau urte itxaron behar da mahatsak jasotzen hasteko, eta produkzio on baterako, berriz, zazpi bat urte. “Tarte horretan nondik bizi? Diru-laguntzak ez daude horretarako batere prestatuak”, salatu dute. Lehen urte zail horiek pasatzea lortu ondoren, 2016an, lehen aldiz, probetarako



ardo kantitate txiki bat egin ahal izan zuten. 2017an, berriz, ardo produkzioarekin hasi ziren bete-betean. Aurtengo uztatik 4.000 botila inguru ateratzea aurreikusiten dute, eta hiru hektareetako mahasti guztiak produzitzen hasten direnean, 10.000 ingurura iristea da helburua.

MAHATSA ARDOTZEKO UPELTEGI PROPIOA

“Hasierako urteetan Erriberrin eta Iguzkitzan ardotu genuen gure mahatsa, hemen azpiegitararik ez genuelako”, diote. Haien asmoa Arizkunen bertan haien upeltegi propioa martxan jartzea zen, eta azkenean, 2019an lortu zuten. Geroztik, han egiten dute ardo guztia. Irulegi sormarkako Izkiriota handia eta txikia, txakolineko Hondarribi Zuri eta Altsaziako Riesling mahats motak erabiltzen

dituzte ardoa egiteko, dena eredu ekologikoan ekoiztuta. “Hasieratik argi genuen ekologikoan lan egin nahi genuela, ingurumenarekin, langileekin eta kontsumitzaileekin errespetuzko zerbait izan beharra zuelako, eta gure txikitasantetik mundua beste eredu batzuekin mugitu beharra dela uste dugulako”.

Orain arte Kiribil izeneko ardo mota bakarra egin badute ere, aurtan berrikuntzekin datoz: Betarte ardoa, egurrezko upelean ondua. Salmenta zuzenari eta merkaturatzeko bide laburrei garrantzia ematen diete eta inguruko azoketan ibiltzen dira askotan. Bestela, hurbileko dendetan eta jatetxeetan ere saltzen dute, eta Baztango Zaporeak ekimeneko parte ere badira. Euskal Herriko beste tokietara Biba Ardoak proiektuaren bidez iristen dira. ●

AMA, HIRI BIHURTUTA

Asturiasko Colectivo Bruxista azpikulturetan eta bereziki mod mugimenduan jarduten duen taldea da. *Bruxismo* izeneko fanzinea argitaratzen dute, eta orain arte zortzi zenbaki plazaratu dituzte; XIX. eta XX. mendeetako bazterreko une historikoak lantzen dituzte testu txukunekin eta diseinu ederrarekin, orainari bizkarra eman gabe. Bada, aurten, fanzinetik argitaletxera egin dute salto, bai eta bi liburu plazaratu ere: Dani Llabrés valentziarraren *Un mono marino se ha bebido mi Fanta* (*Itsas tximino batek nire Fanta edan du*) eta oraintsu kaleratu duten Stewart Home (Levin Llewellyn Callan) idazle britainiarraren *Tainted Love* (*Maitasun kutsatua*) nobelaren gaztelaniako itzulpena.

JULEN AZPITARTE

Colectivo Bruxistak argitaratutako *Tainted Love* eleberriaren itzulpenaren hitzaurrea idatzi duen Javier Calvo idazle eta itzultzailearen arabera, “Homek beste britainiar xeble batzuen (Alasdair Gray, B. Catling, edo baita lain Sinclair ere) aura partekatzen du: ‘bai, baina ez da *benetako* nobelagile bat’ esaten duen aura”. Bada, eleberri klasikoa-
ren egituratik gertuen dagoen Home-
ren lana *Tainted Love* da: istorio lineala dauka, baita kronologiak, eszenatokiak eta pertsonaiak ere, zertzelada esperimental batzuk antzematen diren arren. Bere nobelarik ezagunena, laudatuena eta irakurriena da. Halere, ez da batere arrunta. “Hamar irakurle arruntartetik bederatzik bota egingo lukete beldurtuta 20 orrialde irakurri ondoren”, nabarmendu du Calvok aitzinsolasean.

Homereren ama Julia Callan-Thompsonen (1944-1979) bizitza kontatzen du *Tainted Love* lanak. 1960ko hamarka-

dako Londresko *Swinging London* eszenan igaro zuen bere gaztaroa Juliak. Giro kontrakultural eta hippy horren baitan ohikoa zen bidaiak egitea ekialdera edo bestelako gune askeetara, norberaren kontzientzia zabaltzeko asmoz. Hala, Ibizan eta Indian ere izan zen idazlearen ama. Azkenik, 1979. urteko abenduaren 2an, Notting Hill auzoko soto batean aurkitu zuten hilda, 35 urte zituela. Juliaren heriotza misterioz beteta dago, poliziak ez baitzuen heriotzari buruzko ganorazko ikerketarik egin. Nobelan biltzen denez, *beatnik* eta kontrakultura giroaz gainera, Juliak Ingalaterrako hiriburuko hanparen zirrikitu guztiak ezagutzen zituen, bere drogazaletasuna eta lanbideak tarteko -modelo eta goi klaseko gizonentzako klubetako konpainia-neska gisa aritu zen-.

Liburuarekin batera, Homek bere amaren inguruko hamaika datu eta istorio argitaratu zituen bere webgunean eta sare sozialetan. Hori dela eta, bai

eta aurretik hainbat literatur amarru erabiltzeagatik ezaguna zelako ere - tartean, literatur *hoax*-ak, *alter ego* faltsuak eta gezurrezko istorioak- Juliaren pertsonaia eleberriko heroi faltsutzat jo zuten aditu eta zaleek. Hartara, idazleak behin eta berriro baieztatu behar izan zuen eleberriaren aurkezpen-ekitaldietan bere ama hezur-haragizkoa zela, eta nobela amak utzitako gutun eta egunkarietan oinarrituta zegoela.

Calvok hitzaurrean azaltzen duenez, Julia Callan-Thompson bizi izan zen ala ez bigarren mailako kontua da; eman dezagun baietz, bizi izan zela, liburua liluragarria baita. Londres psikodelikoari buruz idatzi den eleberri interesgarrienetakoa da, garaiko kronika kontrakulturalaren B aldea biltzen baitu. “XVIII. mendeko eleberri pikaresko handien ondorengo garaikidea da”, Calvoren hitzetan.

Homereren arabera, bere ama Julia 1944an jaio zen Galesen, eta 1960ko



Julia Callan-Thompson, Stewart Home idazlearen ama.
Tainted Love lanak Callan-Thompson du ardatz.

hamarkada Londresko Notting Hill auzo koloretsuan igaro zuen. Modelo eta klubetako neska gisa aritu zen lanean, drogak eskuratu ahal izateko. Sasoi hartan seme bakarra izan zuen, bai eta adopzioan eman ere. Bidaia li-sergiko horretan Juliak hainbat pertsonaia kontrakultural ezagutu zituen, tartean Rolling Stones taldeko Brian Jones, William S. Burroughs eta Alexander Trocchi idazleak, Timothy Leary psikologoa eta LSDaren defendatzailea, R.D. Laing psikiatra eta *Penthouse* aldizkaria sortu zuen Bob Guccione argazkilaria.

Jilly O'Sullivanek, kontakizunean Juliaren azalean sartzen den neskak, aipatutako aktore horietako batzuk eta beste asko topatuko ditu drogek bultzatutako bere bidaia esperimentalean. Homek, bestalde, atalka egituratuko

ditu elkartzeko horiek. Hala, sasoiko kontra-kronika josiko du fikzioa eta gertakari errealak uztartuz: Kray anaia gangster ospetsuen orgietan parte hartuko du Jillyk, eta anaietako baten homosexualitatea ezkutatzeko trikimailuetan ere ibiliko da; Donald Cammel zinemagilearekin, Michael X iraultzaile beltzarekin eta John Lennon musikariarekin drogak hartuko ditu, eta abar.

Pertsonaiak eta topaketak azidoa daraman txiklearen modura moldatzen ditu Homek, nobela pikaresko klasikoaren atalkako egiturari tinko eutsiz. Estructura osoa, halaber, amaren inguruan ardatzen da, ama bera hiri bihurtu arte, Jilly zeharo lotuta baitago Londresera. Adikzioak eta eszena soziala kate pisutsu bilakatuko zaizkio, baina horretaz harago badago hiriburura atxikitzen duen zerbait misterioitsuagoa, ilunagoa:

India edo AEBak bisitatu ondotik ere, beti bueltatzen da Londresera. "Hiltzeko lekua du, eta bere heriotzak Londres kaotiko eta sekretu haren heriotza ere irudikatzen du", dio Calvok.

Eleberriko heroia, hain justu, punkaren etorrerarekin zenduko da. "Punkak mod mugimendua gogorarazten dit bere bilakaera-aldi masiboan, eta musikalki oso lotuta dago 1960ko hamarkadako Action edo Creation bezalako taldeekin. Jendeak dio punka bat-batean sortu zela; dakidan gauza bakarra da 1976. urteko udaberrian AEBetara joan nintzela minbizia tratatzera, eta 1977. urteko udaberrian Londresera itzuli nintzenean punkak nonahi zeudela. Gehienak ederrak iruditzen zaizkit, baina anfetak hartzen dituztenean, trauskil huts bihur daitezke", diotso irakurleari Jillyk. ●

Puppy

elkarrizketarako aitzakia

100.000 euro biltzeko kanpaina jarri du martxan Bilboko Guggenheim museoak. Jeff Koonsen *Puppy* eskultura ezagunaren konponketa lanetarako behar dute dirua. Harrabotsa sortu du kanpainak, museoeko garbitzaileen grebarekin eta Urdaibaiko hedapenaren proiektuarekin batera hartuta jokaldiak ez baitirudi hain borobila. Dirukopurua udazkenerako biltzea espero du Juan Ignacio Vidarte museoaren zuzendariak.

PERU IPARRAGIRRE

1 2,4 metroko txakurkumea irudikatzen du Koonsen eskulturak goitik behera estaltzen duten lorez jantzia. 1992an Alemaniako Arolson hirian egin zen erakusketa baterako prestatu zuen eskultura artista estatu-batuarrak. 1995ean Sydneyko portuan jarri zuten, eta 1997an erosi zuen Solomon R Guggenheim fundazioak, Bilboko museo berriaren atarian jartzeko. New Yorkeko Rockefeller Center plazan egin zen tarte batez, eta Bilboko Guggenheimeko bildumaren parte da bertara itzuli zenetik. Azken hamarkadetan bertan iraun du, eguratsaren menera, eta eskulturaren egiturak eraberritze lanak behar ditu.

Ikusgarria da kanpotik, 38.000 lorek osatzen dute *Puppy*ren ilaje koloretsua. Lana ere bada mantentzea: urtean birritan aldatzen dituzte loreak. Altzairuzko egitura batek heltzen dio loreek behar duten ongariari: 25 tona inguru. Denborarekin, baina, eskulturak bizirik irauteko dituen mekanismoak zahartzen ari dira, ureztatze sistemak ihesak ditu, eta altzairuzko egiturako zati batzuk ere aldatu behar dira.

Koonsek azaltzen duenez, Europako eliza eta katedral barrokoetako polaritateen arteko oreka nahi zuen ekarri obra batera. Horietan simetrikoa dena asimetrikoa denarekin elkartzen da, betierekoa modu efimeroan agertzen da. *Puppy* kontrolari eta kontrola uzteari buruzko lana da, bere aburuz. Kontrol falta hori, bizitzaren indarrek gidatutakoa, erakusten du eskulturako loreen hazkuntza deskontrolatuak. Oinarrian, ideia bikoitza dago. Batetik, lorezaintzaren historiari omenaldi bat, eta bestetik, jendearentzat funtzio espirituala izan dezakeen obra bat sortzea: jendea inguruan elkar dezakeena, transzendentiari buruzko elkarrizketan.

Horratx obraren inguruko azalpena. Museoak dagoeneko finantzaketa publiko esanguratsua eduki arren eta Espainiako Estatuko museoaren artean sarrera garestiena duen arren, finantzaketa kolektiboa hautatu dute *Puppy* biziberritzeko lanak ordaintzeko. Nolabaiteko mezenasgoa da eskaintzen dutena: ordaintzen duenak obraren zati bat babesten du.

Argi utzi dute, hala ere, jasotzen duten dirua ez bada ezarritako helburura heltzen museoak jarriko duela falta den zatia, eta pentsatzekoa da jendea dirua eskatzeak aurrekontuaren zati bat aurreztuko badu ere bere gain har dezakeela museoak eraberritzearen kostu osoa. Obraren zentzu orokorrarekin bat egiten du jokaldiak, baina ertz batzuk ere erakusten ditu.

Museoari, *Puppy*ri bezala, loreak maiz aldatzen dizkioten arren eta publikoari kanpoalde erakargarria erakusten badiote ere, barrualdea funtzionarazten duena ez dago hain egoera onean. Horrela salatzen zuen orain dela bi egun Ane Zelaia Arieta-Araunabeñak, ELAko Bizkaiko zerbitzuetako arduradunak, *Berrian*: "Kontua da museo bat ez dela altzairu eta titaniozko egitura huts bat, proiektu megalomanoetan edota dohaintza kanpainetan oinarritzen dena. Museoa bizirik mantentzen dutenak langileak dira. Ordea, Bilboko Guggenheimeko zuzendaritzak, Eusko

Jaurlaritzak, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Aldundiak urteak daramatzate langileei tratu eskasa ematen, batez ere azpikontratazioaren bidez. Eta, orain, jakina, *Puppy*ren antzera, kolokan da oinarria".


Azken hilabeteetan behin baino gehiagotan agertu da museoaren izena berrietan, eta ez bertako erakusketen harira. Guggenheim Museoa Urdaibaiko bi kokalekutara zabaltzeko proiektuak berriz ere harrotu ditu hautsak. Unai Rementeria Bizkaiko diputatu nagusiak adierazi du egin egingo dela, Europako dirulaguntzak jaso ala ez.

Bitartean, Bilboko Museoeko garbitzaileak greban daude ekainaren 8tik lan baldintza duinak bermatu eta soldata arrakala gainditzeko. Emakumeak dira gehienak, azpikontratatuak, museoan bi hamarkadaz lan egin arren, eta hitzarmena zaharkituta geratu da. Arieta-Araunabeñak salatu duenez, zuzendaritzak ez du irtenbiderik eskaini, eta soldata arrakala bera ere ukatu du.

Txakurkumearen finantzaketa kolektiboak ez du begi onez ikusi jendeak, adarjotzea iritzi dio. Gutxika, ordea, ari da dirua sartzen. 16.000 euro inguru markatzen du orain. Asko falta da, hala ere, jarri duten helbururako, asko dirutan eta ez hainbeste denboran, museoeko zuzendariak espero baitu lanak udazkenean hastea, eta ordura arte egongo da zabalik kanpaina. Bitartean, jendea ari da eskulturaren bueltan elkarrizketan, lan-baldintzen inguruan, museoaren finantzaketaren inguruan eta instituzioen politika kulturalen inguruan. ●



Jose Ametzola, ezer irabazi ez zuen txapeldun olinpikoa




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Paris, 1900. Aro modernoko bigarren joko olinpikoetan lehen eta azken aldiz jokatu zen ofizialki zesta puntako lehiaketa; ondoren, 1968ko Mexikoko jokoetan eta 1992ko Bartzelonakoetan ere pilota erakustaldiak izan ziren, baina ez zen lehiaketa ofizialik jokatu.

Parisko zesta punta proban soilik bi bikotek hartu behar zuten parte: Ipar Euskal Herriko Durquetty-Etchegaray bikoteak Frantziako taldea ordezkatuko zuen eta Espainiarekin, aldiz, Villota kantabriarra eta Ametzola bizkaitarra arituko ziren. Neuilly-sur-Seineko frontoian jokatzekoa zen lehiaketako partida bakarra eta, beraz, finala. Horrenbestez, euskaldunek hiru domina eta titulu olinpikoa ziurtatuta zeuzkaten, baina lauak esku hutsik itzuli ziren etxera.

Ipparaldeko bikotea deskalifikatu zutela bada kigu, baina, zenbait iturriren arabera partida hasita erretiratu ziren eta, beste iturri batzuk diotenez, azaldu ere ez ziren egin, lehiaketaren antolakuntzari eta araei buruzko desadostasunak medio. Neuilly-sur-Seinen uda hartan jokatutako zesta punta partida baten irudiak badaude (horietako bat dago hemen jasota), baina egun haietan, amateurren proba olinpikoaz gain, profesionalen munduko txapelketa ere jokatu zen –Angel Barrenetxea eta Juan Ituarte irabazi zutena– eta baliteke argazkiok lehiaketa horretakoak izatea.

Jose Ametzola (1874-1922) Urkabustaizen (Araba) jaio zen, baina Bilbon bizi



Ezkerrean, Jose Ametzola puntista amateur bizkaitarra. Eskuinean, ustez, 1900eko Parisko Joko Olinpikoetan Ametzolak eta beste hiru puntistek jokatu (ez) zuten zesta puntako finalaren argazkia.

izan zen txikitatik. Familia aberats bateko semea, Banco de Bilbao-ren batzordekide eta antzerki eta zezenketa enpresaburua izan zen. Madrigo kongresuan diputatu kontserbadore ere izan zen, Durangoko ordezkari gisa. Baina bizi zen artean eta hil ondoren ere urte luzez, inork ez zion aitortu puntista amateur gisa txapeldun olinpikoa izan zela.

1998an Bill Mallon historialariak Parisko jokoen errebisio kritikoa egin zuen, eta Villota-Ametzola bikotea txapeldun olinpikotzat jo zuen. 2004an Nazioarteko Batzorde Olinpikoak ofizialki onartu zituen Mallonen ondorioak.

Urte asko pasako ziren euskal herritarrek berriro txapeldun olinpikoa

izan arte. Anberes 1920 eta Los Angeles 1984an zilarrezko dominak lortu zituzten, Frantzia nahiz Espainia ordezkatu. Baina urrezko dominak ez ziren Bartzelonako 1992ko jokoak arte iritsi: David Billabonak eta Mikel Lasak gizezkoen futboleko lortu zuten urrea, eta Nagore Gabellanes, Silvia Manrique, Teresa Motos eta Maider Telleriak emakumezkoen belar hockeyan.

Villota-Ametzolak jaso ez zuten urrezko domina hori Espainiak ofizialki irabazi zuen lehen titulu olinpikoa da ordea; geroztik euskal herritarrek hainbat domina lortu arren, Euskal Herriak inoiz ez baitu parte hartu eta, beraz, saririk lortu. ●



Foruko erromatar herrixka birtuala

Hil honetan hasi eta abuztuaren 28a bitartean, Foruko (Bizkaia) erromatar herrixkaren arrastoetara hurbiltzen denak bisita gidatu berezia egin ahal izango du, aurrez aurrekoa eta birtuala, aldi berean. Bizkaiko Foru Aldundiaren *Ibilbide historikoak* programaren barruan, bisitariak tablet bat izango du eskura; begi

hutsez eraikin zaharrak egungo egoeran ikusiko ditu eta, tabletaren bidez, aldiz, eraikin horiek birtualki berreginda ikusi ahalko ditu: II. eta IV. mendeen artean martxan egon zen tailer metalurgiko bat, I. mendeko eraikin militar bat, eta I. eta II. mendeko domus bat, hau da, patioa duen etxe bat. ●



LIBURUA

Indarkeria berriak deszifratzen



BARBARA NIGGL RADLOFF

INDARKERIAZ
EGILEA: HANNAH ARENDT
ITZULTZAILEA: ITZIAR DIEZ
DE ULTZURRUN SAGALÀ
 KATAKRAK, 2021

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Ez gehiegitan, baina batzuetan gertatzen da. Pentsalari handiek errealtatea begien aurrean eraldatzen sumatu eta galdera berriak bilatzeari ekiten diote. Gogoetatze kritikorik zorrotzena, gertatu ahala, zuzenean ikustea bezalakoa izaten da. Horregatik, normalean, irakurlea astintzen duten irakurketak izaten dira. Horixe da, hain justu, Hannah Arendten *Indarkeriaz* liburua, Katakrakek argitaratu duena.

Etorkizun ezaren sentsazioak hauspotuta, gazteen indarkeriazko ekintzez dihardu Arendtek 1970ean. Herriaren arabera forma bereizgarriak hartzen zituen. Alta, gertaera global baten lekuko gisa dakartza testura –eta gutxitan laudatzeko–, beste askoren artean,

Pantera Beltzen ekintzak eta 68ko Maiatza.

Hor hasten da Arendt filosofikoki pentsatzen. Esango digu: ez da berdina, besteak beste, “boterea” eta “indarkeria”. Bakoitzaren definizioetan saiatu ondoren dio, zehazkiago, boterea eta indarkeria kontrako kontzeptuak direla. Hau da, herri-boterea erabatekoa denean ez dago indarkeriarik, eta indarkeria erabatekoak herri-botere falta dakar. Pentsatzeko metxa bezalakoa iruditu zait.

Marx eta Fanonekin tentsio eraikitzailean antolatzen du proposamena. Agian, interesgarriena da, ezer baino lehen, bi horiez egindako irakurketa errazegiak baztertzeko dituela. Iruditu zait, badugula zer ikasi, eta gurean ere eredu gisa hartu

genezakeela biak ala biak zehatzago irakurtzeko jarrera kritikoa.

Arendtek 65 urterekin argitaratu zuen liburua. Bizitza osoa zeraman jada, besteak beste, indarkeriaz pentsatzen. Hamarkada bat lehenagokoak ziren adibidez, *Eichmann in Jerusalem* ezaguna osatuko zuten testuak. Eichmanni buruzkoak Bigarren Mundu Gerrara arte perfektionatutako indarkeria burokratizatuaz baziharduen, liburu honek jarduten du Gerra Hotzaren baldintza material berriei erantzuten zion indarkeriaz.

Lehenengo indarkeria hura ez zen desagertu. Are, bigarrenari ireki zion bidea. Iruditzen zait gaur egungo indarkeriek geruzak gehitu dizkiotela aurrekoei. Batzuk ulertu gabe ezin deszifratu besteak. ●



MUSIKA

Adi Dalton anaiekin!



IKER BARANDIARAN

Banekien taldea punk-rocketik hurbil zegoela, baina ezer gutxi gehiago. Eta pandemia honetako egun 'argitsuetako' batean Urretxun-edo Zumarragan, nork daki!- gozatu-tako kontzertu batean Motz tabernako ugazabaren postuan aurkitu nuen taldearen binilo koloretsu eta deigarria. Etxera eraman nuen, baina ahaztuta izan dut. Bada, atzo bertan plastikoa kendu, orratzak biniloan lur hartu eta *Out of control*-ek eztanda egin ahala aho zabalik gelditu nintzen. Zer freskura! Zer indar! Zein ahots sinesgarria! Punk-rock indartsua, itsaskorra, modu dotorean erritmoa, groovea eta ahots beltza txertatuta.

Maila oso ona erakusten du 'kontrol-lik gabekoak', baina jarraian datorrena

ere oso txukuna da: *Potion* melodikoagoa da eta era berean dantzagarria, Ingalaterrako 77tik eta Real Kids talde maisutik edan duena. *Sunset riders* malenkonia tanta batzuek bustitako punk-rock melodikoa da. Tarteka Nuevo Católico gogorarazi dit. *Last chance*, pop-a maitate duen punk-rock-and-roll-power-pop dantzagarria. *Garratz* Muturbeltz, AC-DC eta enparauen hard-rockaren aldeko euskarazko deia-darra da. *Dance it again* Jon Iturbe & Radio Gansters-en tempoak daukan boogie-rock-and-rolla, lasaiagoa. *Saturday night*, klasikoaren errebisio ederra eta kutsakorra. *A day to remember* askoz pausatuagoa eta melodikoagoa, power-pop pieza itsaskorra. *My dose* pub-rockaren eta oinarrizko rock-and-rollaren



BAAMS

LAST CHANCE

ARTZA RECORDS, 2021

lekukoa da, gitarrak beti hor. *Muddy boots*-ek irudikatu dezake, adibidez, The Cars-etik Johnny Thunders gazte batera arteko bidaia gogoangarria. *New beginning* da power-pop sentikorra, ia kaliforniarra, bere kiribilduak ere badi-tuena. *Guilty*-k tempo biziagoa du eta maltzurkeria kaletarragoa. Bukatzeko, *I won't worry*-k gogorra ekarri nahi ditu Detroit-eko soinuak, Zen Gerrilla, musika beltzaren erritmoa eta rockaren urgen-tzia. Ederra!

Baams 2017an Hernanin sortutako boskotea da, eta honako lan dotorea – boskotearen lehen lan luzea– 2020an grabatu zuten Berako MIK estudioan. Bada, Artza Records diskoetxeak lan honetaz gain, taldearen aurreko maketa ere biniloan kaleratu berri du. ●



Manifestu bat

AMETS ARANGUREN ARRIETA AINHOA IRAOLA

Iragarri zuten momentutik argi nuen ezin nuela galdu. Ekida kultur ekimen sozialistaren *Manifestua* ikuskizunak aurreikusia zuen birako emanaldi batera ere ezin izan nintzen agertu, baina azken momentuan gehitu zitzaion EHZ-ko kartel ederrari. Festibalera heldu, tramankuluak kanpinean ahal bezala utzi eta Irisarriko plazara egin genuen azkar, oholtza gainean topatuko genuenaren jakinminez. Espektatibak, egia esan, nahiko goian.

Ikuskizunaren izenburuak berak ere ez zidan ikusi eta entzunen genuenaren inguruko pista handirik ematen. Aurreko emanaldietan publiko gisa egondako inguruko komentarioekin eta sareetan ikusiriko argazkiekin irudikatu nuen buruan plazan aurkituko nuena. “Ez da kontzertu bat. *Mucho texto*, hitz anitz”, utzi zuten argi hasieratik. Zortzi gazte oholtza gainean, beltzez. Bi irakurle aurrean, ezkerretara. Hiru kantuan, eskuinetara. Eta beste hiru mu-

sika instrumentalean, aurreko bosten atzean.

Erantzun baino galdera gehiago. *Nola hasten da manifestu bat? Zertarako? Zer kantatu behar zaio kantuz ez dakienari? Norentzat behar luke poetaren ahotsak?* Proposatutikoa hausnarketarako gonbitea omen, ez edertasun erakustaldi. Poesia, kantua, musika instrumentala eta bertsoren bat, beraienak eta beste batzuenak. Hausnartzeko mamia egon bada eta ez gutxi gainera, baina beharbada azkarregi joan zen dena. Ikuskizuna mamira heldu bada ere, ni edukiari heldu ezinean geratu naiz, formaren geruzan harrapatuta. Horraino heldu naiz hitzartze eta kanten hitzetan. Paperean behar nituen hitzok, hitzaurre idatzi bat pausatutik irakurri eta beharbada dena ez, baina pixka bat gehiago ulertzeko. Egia da, era berean, festibaleko plaza irekia agian ez dela horrelako ikuskizun bat egiteko lekurik onena.

Teknikoki emanaldiak ez du akatsik

MANIFESTUA

NOIZ: uztailak 2

NON: EHZ festibala

izan. Ez diot horri garrantzirik eman nahi, baina aitortzea ez dago soberan. Musikiariak bikain aritu dira instrumentalean, bai irakurraldiak girotzen, bai kantetan ere. Abeslariak eta irakurleak ere fin. Kontu bakar batek eman dit atentzioa: poesien eta irakurketen tonu irmo eta aldarrikatzailetik urruti sentitu dut musika, koherentzia horretan galdu naiz, mundu desberdinak bailiran sentitu ditut. Jakina da musikak ez duela adierazten, baizik eta iradokitzen. Hor dago koxka, musikak ez dizkit batere hitzak iradoki. Agian ni naiz.

Lau esaldi geratu zaizkit iltzaturik. *Mundua ez du arteak antolatzen. Ez gara orain garena soilik. Ausarta den kantu hori, beti da kantu berria. Manifestu bat da gure ekintza bakoitza.* Lau esaldi eta hamaika galdera. Gustura ikusiko nuke berriz *Manifestua*, aurretik Ekidako lagunekin mahaiaren eta pote batzuen bueltan pare bat orduz mintzatzerik banu. ●



Hitz gezidunak

Gaia: Pirinioetako mendiak

 XABI BASA 1	... SILVEIRA, BERTSOLARIA 1	NAFARROAKO HERRIA NORAT ATZIZKIA	ANTZINAKO GREZIAKO HERRITAR BURUGABE, ZORO	ELIKATU NAFARROAKO HERRIA	 2
	BASOKO EGURGINTZA ZUREZKO ONTZI				
ZUR SENDOKO ZUHAITZA 2	HARRIDURA ADIERAZTEKO HITZA SUFRITU		KONTSU- MITZE ... EGIN, PORROT EGIN	TUA BOTATZEN BURUJABE	LORIAZ BETE BIZKAIKO HERRIA
ARRISKU SEINALEA NORENTZAT ATZIZKIA		GURDIA BUKATU, AGORTU	IZUTI GOI-MAILAKO, BIKAIN	ITALIAKO HIRIA BERE	
GERIZA HEMEN DAGOENA			3 NOBLEZI TITULU		NONGO ATZIZKIA LITROA
	TUTU ALDE HEMENDIK, GALDU!			4 ITURBURU, JATORRI	
 XABIER ESKISABEL 3	NORBAITI EGOKITZEN ZAION PARTE LUTEROTAR				 4

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	2			6	5	8		9
								7
		6	3					1
		1						7
	9	7	8		6	2	5	
	5					1		
1					4	9		
3								
9		5	7	8				3

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Akatsa
2. Ukamenak
3. Txalupetako ohola
4. Ugaztun itsu
5. Nardo

EBAZPENAK

1. HUTSA
2. UKOAK
3. TOSTA
4. SATOR
5. AKARA

2	7	8	1	4	3	2
3	8	4	9	5	2	7
1	7	2	6	3	9	5
4	5	8	2	7	3	1
4	9	7	8	1	6	2
2	3	1	5	4	9	6
8	4	6	3	9	7	5
5	1	9	4	2	8	3
7	2	3	1	6	5	8

	O	N	V	R	E	J	U	L	
	N	E	M	A	K	O	J		
	V	A	V	L	I	K	I	P	
S	V	L	R	V	I	D	O	H	
O	G		I	H	R	O	L	V	Z
I	V	A	R	V	G	O	R	J	V
R	K	O	R	Z	I	V	M	A	R
O	M	O	S	T	N	O	K	B	E
L		J		N	E	R	E	V	A
	N	V	L	O	S	V	A		
	V	L	E	X	T	R	V	A	R
	J		H		O	X			

Ionan Marigomez

AI, ITSASORIK EZ BAGENEUKA...



ONDO KOSTATAKO KOSTAKO EGOITZA

“Estazio hau unibertsitatearen behar batetik dator. EHU beti egin dira itsasoarekin lotutako ikerketak. Baina arazo bat genuen: ez zegoen honelako instalaziorik itsasotik gertu, eta behar da. Lehen, okerezbanago, 25.000 litroko biltegi bat geneukan, eta kamioi batek etorri behar zuen betetzera. Horrek mugatu egiten du esperimentera iraupena. Arazo horrekin hogeita inguru egon ginen, itsasoaren ondoan leku baten bila. Nik 2000. urtean jo nuen Plentziako alkatearengana, leku honetaz galdezka; erdi utzita zegoen adinekoen egoitza bat zen. Hamahiru urte kostatu zitzaigun irekitzea, baina azkenean lortu genuen”.

“Mila arazo ditu itsasoak, baina denen oinarria bera da: gu asko garela”

Ionan Marigomez Allende (Erandio, 1961) biologoa da lanbidez eta bokazioz. Bera izan zen EHUren Plentziako Itsas Estazioaren sustatzaile nagusia, eta bera da bertako zuzendaria 2013an sortu zenetik. Bulegoan hartu gaitu, atzealdean Gorlizko badia ageri dela, eta hantxe jardun dugu, luze, planeta hau estaltzen duten itsasoan gaitzez eta konponbideez. Marigomez baikorra baita: konponbideak egon badaude.

UNAI BREA HODEI TORRES

Itsasoa betiko hondatzen ari gara?

Pandemia dela-eta egon den blokeo orokorraren ondorioz, ikusi dugu segur aski egiten ditugun gauzek sekulako eragina dutela, baina, aldi berean, gure eragina desagertuz gero oso azkar erantzuten duela sistemak, bere onera itzuli nahian. Nabigazioa apur bat murriztu, zarrak kendu... eta hobekuntza igartzen da. Bestalde, dimentsioa izan behar dugu kontuan: gu Lurraren oso leku txiki batean bizi gara. Badirudi nagusiak garela, baina lurralde txiki bateko nagusiak gara. Beste guztia oso zabala da, eta izugarriko ahalmena du moldatzeko. Gelditzen garenean, lehenengo kolpean gutxienez, aldaketak ikusten dira, eta halako batean basurdeak ikusten ditugu kalean, eta orkak badian. “Hara! Non zeuden?”. Bada, gurengandik urrun. Beraz, galderari erantzuteko: nolako eragina dugu itsasoan? Handia. Atzeraezinezkoa da? Ez dut uste, optimista izan nahi dut. Eta kasurik txarrean, itsasoa baino lehenago gu desagertuko gara.

Itsasoak iraun egingo du, beraz, baina haren barruko bizitzak?

Baita ere. Zatik ahulena gizakia da; kontrakoa pentsatzen badugu ere, natura zaindu nahi dugula diogunean, benetan gure biziraupena babestu nahi dugu.

Zehazki, zer gaitz du gaur egun itsasoak? Gehiegizko arrantza, kutsadura...?

Faktore askok egiten dute bat. Eta denak daude elkarrekin lotuta. Mila arazo daude, baina denen oinarria bera da: gu asko garela (ez diot gehiegi, asko baizik), luze bizi garela, oro har oso bizitza aktiboa dugula eta beraz asko kontsumitzen dugula, ez dugu eguna eserita pasatzen. Horrek ordaina du.

Karbono dioxidoaren kontzentrazioa handitzearen ondorioz, beste hitz bat ikasi dugu: azidotzea.

Atmosferako CO₂ kontzentrazioa handitzen bada, haren kantitate handiagoa disolbatzen da itsasoan, eta



“Pandemian ikusi dugu gure eragina desagertzen denean oso azkar erantzuten duela sistemak bere onera itzuli nahian”.

horrek azidotzea eragiten du. Animalientzat, pHaren aldaketa txiki bat izugarria da. Haien metabolismo basala, oinarrizkoa, handitu egiten da, eta horrek esan nahi du energia gehiago behar dutela izateko, existitzeko. Beraz, ez dira hazten. Azken urteetan behatu da munduko animaliak, oro har (lehorrekoak ere bai), txikiagotzen ari direla. Ezin esan, ordea, arrazoi bakarra itsasoa azidotzea denik. Lehen esan bezala, faktore askok egiten dute bat.

Itsas estazioak sortzearen arrazoa, edo helburua, itsasoaren osasuna zaintzea da, hain zuzen?

Bitxia da, baina zergatia oporrak dira. Itsas estazioak XIX. mendean sortu ziren, naturalismoa garatzearekin batera. Ordura arte ez zegoen kezka handirik naturarekiko. Eta itsas estazioek abantaila bat zuten: modan zegoen hondartzara joatea, eta ikerlariak hara joaten ziren, familia hondartzan zegoen bitartean ikertzen jarraitzeko. Ikerketaren helburua ez zen itsasoa ulertzea, baizik eta zientzia garatzea, oro har, eta horretarako itsasoaz baliatzea. Gaur egun, estazioen helburua

itsasoa ulertzea da, eta ikasitakoa erabiltzea arazoak konpontzeko, ez itsasoarenak bakarrik, esparru guztietakoak baizik.

Itsasoa ulertzea, diozu.

Mundua ulertzea, izan ere. Kontuan hartu behar dugu mundu gehiena itsasoa dela, planeta urdina da hau, eta ez luke Lur izena eduki behar, baizik eta Itsaso, Ur, edo halako zerbait. Eta bizidun gehienak uretan daude. Itsasotik kanpo, goranzko ehun metrotan eta lurpeko bost metrotan dago bizitza gehiena, eta itsasoan, aldiz, bost kilometro dituzu beheantze. Itsasoak bolumen izugarria du. Hori ezagutzeko dena ezagutzeko da.

Eta lortu dugu hain gauza handi hori ulertzea?

Horretan gabiltza. Oraindik gutxi dakigu itsasoaz. Baina gaur egun interesa dago, teoriarik behintzat. UNESCOk esan du 2021-30 hamarkada dela ozeanoko zientzien hamarkada. Ustez, horrek ozeanoa ezagutzeko mugimendu asko ekarriko ditu. Duela urte batzuk, itsasoa ezagutu nahia ez zen planteatzen.

Zer ikertzen duzue hemen, Plentzian?

Ildo asko ditugu. Batetik, bizidunak, noski, baina ez hori bakarrik, eta askotan, bizidunak ikertzen ditugu ingurumena nola dagoen jakin nahi dugulako. Orain daukagun ildo aipagarrienetako bat korrokoia edo lazunei buruzkoa da. Horiek hazi eta, gainera, haien kontsumoa sustatzen gabiltza.

Zergatik?

Arrazoi argi batengatik: euskaldunok, itsasotik, arrain haragijaleak jaten ditugu. Legatza, itsasoilarra, antxoa, hegaluzea... Basora joan eta hartza, otsoa, azeria eta azkonarra jango bagenitu bezala. Aldiz, basurdeak, behiak eta ardiak jaten ditugu, baina itsasoan dauden horien baliokiak ez ditugu ukitzen. Kate trofikoaren goiko aldekoak kontsumitzen ditugu, eta horrek desoreka sortzen du. Jasangarritasunaren aldetik, beste maila trofiko bateko organismoak ustiatu beharko genituzke. Eta korrokoia da horietako bat. Orojalea da, eta, beraz, alde horretatik egokiagoa. Hori da filosofia: jaten ditugun espezieen dibertsifikazioa. ●



'Pass Sanitaire' ez dutenak tabernetara sartu ahal izango dira, baldin eta bezero guztiak gonbidatzen badituzte



Pass sanitaire-a lortu ez duen Bakartxo Fukuxi, Baiona Ttipiko ostatu baten bazterrean, bere lagun bakarrari begira.

Frantziako Gobernuak adierazi du *Pass sanitaire* agiria ez duten herritarrei ostatuetan sartzen utziko diela, asmo onez ari dela erakusteko. Horrek ez du esan nahi "paperik gabekoek" betebeharrak batzuk izango ez dituztenik. Esaterako, tabernan sartzean bezero denentzako pagatu beharko dute, jendeak nahi beste aldiz zintzurra busti dezan. Eta patxaran eta jagermeister txupito artean, inork oreka galtzen

badu, bizkarrean hartu eta etxeraino eraman beharko dute, *Marseillesa* atzekoz aurrera abestu bitartean. Hala egiten ez dutenak Oloroe-Donamaria alboan eraikitzen ari diren agoten herri berrira eramango dituzte, eta agoten arteko segurtasun tarteari mantentzea ezinezkoa egiten denean, *Pass sanitaire* gabeko insolidarioak Holtzarteko zubitik jaurtiko dituzte haien immunitatea frogatzeko.

Typical Basque Black hole

IRUDIA: HERROR404 | FACEBOOK



SAREAN ARRANTZATUA

Denboraren nozioa



IRUDIA: ANGEL ARNAIZ | FACEBOOK


Droga legalak

BEFORE & AFTER:



IRUDIA: LEONAT EGIAZABAL | FACEBOOK

Oroimen historikoaren legea



IRUDIA: RIKI BLANCO | TWITTER


19,5€



Kamiseta berria!

%100 kotoi organikoa

24€



8€

15€



Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diozu **Bilboko Mbolo Moye Doole** elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

Eskaerak egiteko:

943 37 15 45 azoka.argia.eus

 ARGIA Azoka

E R A K U S K E T A

BIDAIARIK LUZEENA LEHEN MUNDU BIRA

San Telmo Museoa

2021 6 26 / 2021 10 24



Antolatzaileak:



AC/E
ACCIÓN CULTURAL
ESPAÑOLA



STM
San Telmo Museoa



donostia
kultura

Laguntzaileak:



SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga Plaza, 1 / 20003 Donostia / San Sebastián

www.santelmomuseoa.eus / @santelmomuseoa